

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

73. zenbakia

95eko ekainak 23



Jai giroari agurra

JOXE TELLERIA, S. M.
Aseguruak - Korreduria



Beti prest gauzkazu zure arazo guztiak konpontzeko. Ez dago hoberik!

BEASAIN Erauskin Plaza, 2 ☎ 88 26 43 - 88 71 55 Faxe: 88 71 55

SEGURAKO UDALA



Alkatearen agurra

Segurarrok:

Iritsi zaizkigu gure San Joan festak!

Alaitasuna, poza eta herrikoitasuna barra-barra azaltzeko une aproposa.

Hortarakoxe Festa Batzordea aspalditxotik saiatu da ahal duen egitarau onena antolatzen, lan jator eta bikaina, benetan, eginez.

Ba dut motiborik festa hauetan nere poza azaltzeko: lehenengoz, segurar sutsu bezala eta, nola ez, beste lau urteetarako zuen konfiantza nigan jarri duzuelako. Ilusioa eta adorea ez zaigu falta!

Zorionak denoi eta San Joan agurrik beroena festak gurekin ospatu ezina duzuen guztioi.

Alkatearen agurra



Agintearen hasiera hau ez izan arren xamurra une batean alaituko del nere kopeta zimurra eta kantuan agertu nahirik nere iritzi laburra bertso hauetan hartu zazute Alkatearen agurra.

Lehendabiziko agurtzen ditut lehendik saiatu diranak ta pesta hauek antolatutzen aritu zareten danak denon artean egokiago egiten bait dira lanak barru-barrutik eskertzen degu gaur agintean geranak.

Herriz kanpora daudenak ere, gogoan ditut benetan, gonbidapena luzatzen diet une berezi honetan oporraldi bat hartu dezagun eguneroko lanetan alaitasuna nagusi dadin aurtengo San Juanetan.

OLABERRIKO UDALA



Ebaketa tresnetan Europako kalitaterik onena salneurri erabat konpetigarrietan

KENDU, Koop. E.
Industrial poligonoa, z/g
SEGURA
☎ 80 13 40
Faxa: 80 19 05

LATZ, Koop. E.
Gudarien etorb. z/g
ANDOAIN
☎ 59 25 12
Faxa: 59 13 91

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak esker-tuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralerara menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZa

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin. On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea:

"Goierritarak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Correos-gainean).

Tfnoa: 889612.

Faxa: 882719.

124 posta kutxa,
Ordizia.

Zuzendaria:

Loinaz Agirre.

Erredakzioa:

Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea:

Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
kane Altuna eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Ana Irastorza, Rufino Iraola,
Jon Aizpurua, Izaskun Salazar,
Aitziber Murua, Edurne Albizu,
Mari Joxe Madariaga, Xabier
Gartzia, Mikel Oiarbide, Aitor
Arza eta Igor Sarriegi.

Azaleko argazkia: Dioni.

Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 4.900 ale. 4.700 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkiz-
unik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Goieniz, agur urrirarte

Goieniz, Goierriko Zine Klubari lehen zikloa amaitu eta balorazioak egiteko ordua iritsi zaio. Jendearen aldetik harrera ona izan dutelakoan daude Goienizkoak. "Azken emanaldietan kopurua pixka bat jetsi bada ere (filmeen ala udaberriaren eraginez ote?), batazbeste 120 ikusle inguru bildu ditugu. Aipagarria iruditzen zaigu bazkide eta laguntzaile txartelak izanda-ko arrakasta --60tik gora abonatu, ia ikusle goaren erdia--, honek nolabait ere zine klubarekiko fidelotasuna eta interesa adierazten duela-koan".

Ikusleek betetako iritzi orritxoan arabera, (pelikula, oso ona, ona, pss, txarra edo oso txarra izan den galde-tzean), ikusle goa gustura gel-ditu dela esan daiteke lehen zikloan botatako pelikulekin. "Filmeen aukeraketari buruz esan behar dugu, aurrez fin-
katutako irizpide nagusien

arabera izan dela: Aniz-
tasunaren aldetik zalantzarik
ez dago emandako sei peli-
kulak erabat desberdinak
izan direla, bai estilo aldetik,
bai gai aldetik, baita jato-
rriari begira ere --Kolonbia,
EEBB, Britainia Handia,
Grezia eta Zelanda Berria--
zinemagintza ikutuz", adie-
razi dute. Horrekin batera,
"Zine Klub izaeraren izpiri-
tuari eutsi asmoz, saiatu gara
zinema ez komertzialari eta
alternatiboari lekua egiten
eta nola ez, jatorrizko ber-
tsioak aurkeztea ere garran-
tziatsua iruditzen zaigu nahiz eta
zenbait jende (ohitura falta-
gatik edo) atzera botatzeko
arriskua izan. Filmeen aur-
kezpenak eta orri informati-
boak ere, filmeen osagarri
gisa, interesgarri eta era-
kargarri egin nahi izanak
suposatu duen ahalegina
kontutan izatea nahi genu-
ke", gaineratu dute.

Besteek esana

Ibarrako emakumeak

Ibarrako emakumeen erreakzioa ez dakit guztiz justifikagarria den, baina zeharo ulergarria dela ez dit inork ukatuko. Ertzaintzaren jokabidea, jar lekizkiokeen atenuante edo aringarri guz-tiak jarrita ere, penagarria iruditzen zait. Errespeto osoarekin esaten dut, ni eza-gutzen nauenak bai baitaki euskal instituzio guztiei diedan begirunearen be-
rri(...)

Rufino Iraolak, "DV"n
95-VI-17an.

Alkatetza lapurreta?

Demokraziaren izenean ari dira marruka eta zalapar-taka, baina nik gogoan dut --eta hemerrotekak arakatuz edonork froga dezake-- HBk 79tik hona behin baino gehiagotan hartu duela parte zerrenda botatuenari alkate-tza "kentzeko" operazioe-tan(...) Orduan onak eta me-sedegarriak ziren horrelako akordioak, eta orain orde-a ez. Zer aldatu da? Itxura de-nez, HBk galdu egin duela beste inorekin, ezkertiar nahiz abertzale, akordioak lortzeko gaitasuna, edo inork ez duela beraiekin elkartu nahi. Zergatik? Nola iritsi gara honetara?

Xabier Mendiguren Elize-gi, "Egunkaria" 95-VI-16.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Zuzenketa

Azkeneko GOIERRITARRAn, 72.ean, Beasaingo kronikan emakumezkoen saskibaloia eta BKL-ri buruzkoari, zuzenketa oharra:

Inolaz ere, ez zen hori BKL eta emakumezkoen saskibaloiaaren arteko harremanei buruz nik esan nahi izan nuena. Areago, eskertzekoa baita BKL-k beti eskeini digun laguntza, hala nola, BKL-ren barruan kadete mailako talde federatu bat osatzeko ateak ireki izana, adibidez.

Bide horri heldu ez badiogu, federatu mailan kolore jakin batzuen alde aritzeak suposatzen duen pauso garrantzitsua eman aurretik, prestakuntza hobea izatea erabaki dugulako izan da.

Nik euskaraz hitz egitean oraindik ditudan mugek eragin dute benetan esan nahi nuena gaizki adieraztea. Horrexegatik, barkazioa eskatu nahi nieke lerro hauen bidez, BKL-koei. Eskerrik asko.

Jose Ramon Anunzibai (Beasain)

Jose Migel Azurmendi, argitara!

"Jose Migel Azurmendi Albisuk irabazi du aurtengo Gerriko saria. Preso beasaindarrak (17 urtez) Goierriko euskara izan du aztergai, doktoretzarako aurkeztu duen tesina berbera". Horrelaxe jaso nuen "Egunkaria"ren bidez albiste pozgarria. Bejondaiala! Zorionak señor dotore!

Duela ia 30 urteko kontua da, Beasaingo Lasallearrenean geundenekoa. Ni urtebete bat zaharragoa eta, beraz, ez geunden ikasgelan elkarrekin. Herkideak ere ez ginen. Horrela, bada, harreman punttu bat bagenuen: (b)hori Joxehaundiren semea duk"(B), aitzak elkarrekin aritzen ziren lantegian. Horrela kontuak, sartu-irtenetan eta jolastorduan sarritan izaten ginen kontukontari.

Garai hartan, izenak ez ziren existitzen, kasu, Azurmendi. Edota Azurmendi Albisu, bigarrena aipa-

tzen zizutenean, malo!, belarrondo-koa edota dena-delakoa jaso zenuen zegoeneko. Nik horrela nuen ezagutu gehienetan, Azurmendi Albisu alegia. Aitzakia, gutxi-gutxi behar eta, ixila eta gaztelera traketsa erabiltzearena. Komediari hasiera "hermano"ek ematen zioten ikasgelan, eta, ikasgelatik kanpo, segida, Beasaingo akolito ziren kalekume txit argiak. Harrapazak orain! Ez dakit non diren, baina ez ditut, alea bera ere, inondik inora ez entzuten ezta ikusten.

Azurmendi Albisu (39 urtez preso) sari hau izan dadila Askatasuna sariaren aldaba. Ea giltza topatzen duan eta behingoz azaltzen den Jose Migel Azurmendi Albisu. Argitara hadi!, gustoso eta irrikitsu irakurriko haut eta.

Pello Sarriegi (Barrika-Bizkaia)



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN

Sute, tximista, leherketa, urak sortutako kalte edo kristalen hausketen oinarritzko estaldurak, honako hauetara hedatzen dira:

- Kontinenetearen berriztatze estetikoak
- Lapurreta, ondasun bereziak, bitxiak eta eskudirua barne
- Etxetik kanpoko lapurreta
- Erantzukizun zibil zabala
- Etxean, 24 orduko asistentzia

Ikus zure etxea aseguratzeko ze merkea den
Egunean 27 pezetatik hasita

Kontinentea	5.000.000	7.000.000	9.000.000
Edukia	2.500.000	3.000.000	4.000.000
Prezioa	9.902	12.787	16.748

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

ZORION INSAUSTI

DIETA PERTSONALIZATUAK: argaltzeko, kolesterola, azido uriko, kirolari, eta abarrentzat.

Kale nagusia, 8
☎ 88 13 37

ORDIZIA

Intereseko

Telefonoak

Zumarragako Eritetxea:	721614
Donostiako Erresidentzia:	453800
Gurutze Gorria:	272222
DYA:	464622
SOS Deiak:	088
Eguraldi informazioa:	094
Errepideen egoera:	288888
Ertzaintza (Beasain):	887350
Suhiltzaileak (Ordizia):	881362
Renfe (Beasain):	880853
Sarasola Garraioak:	880710
Pesa Garraioak:	880668
Estellesa (Donostia):	470115
Itxaropenaren tfnoa:	429742
HIES-SIDARI buruzko Inf.:	282666
Alkoholiko Anonimoak:	276618
Goierrri Lanbide Eskola:	880062
GOIERRITARRA	889612



Errezeta



Mari Karmen Ortigak emana

**Barandi taberna
Ordizia**

PIPER BITEAK, BARATZURI FRESKO ETA PERRETXIKUEKIN

Osagaiak: baratzuri freskoak, perretxikuak, salda, tomatea, txaka, pikillo piperrak eta tipula.

Baratzuri freskoak eta perretxikuak ondo txikitu, eta zartagian tipularekin jarri egiten poliki-poliki. Egiten doazen eran, txaka gehitu. Bexamela egin eta guztia

nahastuta, piperrak bete. Saltsa egiteko, tipula puska handi xamarrak eta piper zartitxoak zartagian jarri. Kolora emateko, tomate piska bat gaineratu, eta baita salda piska bat ere. Beste bexamel piska bat egin, aurrekoa baino arinxeagoa eta dena bati-dorarekin nahastu. Piper beteen gainera botatzen da salda hau, labean sartu aurretik. 10 minutuz eduki labean.



Bota bertsoa



**Xabier Narbarte
Gaia: San Joanak
Doinua: "Agur sagar
beltzaran"**

San Joan bezperak du xarma nabarmena nik jotzen dut urtean gaurik politena, suak pizteko gaua herrian barrena, misterioitsuena gau majikoena, sorgin denen animak pizten dituen.

San Joan egunean alaitasun onez, baditugu zenbat jai jai txarrik inon ez, Olaberri, Segura aukera dugunez denak ezin esana barkatu mesedez, badugu non galdua San Joan egunez.

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
Tfnoa: 88 40 57 Tfnoa: 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

UNTXUNDEI Garajea



OSINALDE Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

IKASTEK AKADEMIA

Uztailan eta abuztuan

UDA IKASTAROAK

- maila eta arlo guztiak
- laguntza pertsonalizatuak
- irakaslego trebetua
- kalitate eta profesionaltasuna

Informazioa 3etatik 8etara

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5

BEASAIN

Debaldeko iragarkiak

Salerosketak

☐Akordeoi bat salgai "zero fette" markakoa, botoiduna eta oso egoera onean. 88 49 20.

☐80-200 mm-ko zoom objektiboa salgai, Pentax baionetarako. Merkea. 88 74 89.

☐Karrerako bizikleta saltzen da, 8.000 pezetan. 16 0490.

☐Urtebeteko bizikleta kua-dro bat saltzen dut (18 pul-gadatakoa), txikia gelditu zaidalako. Specialiced markakoa, 5 urteko garantia dauka. Salneurria eztaba-datzekotan. 160160 Joxi.

Lana

☐Mutil gazte batek edozein lan egingo luke: atari, bulego, taberna, garbiketak... 88 33 66. Koke.

☐Historialari bat eskaintzen da genealogia egiteko. 883072 (Arkaitz, iluntzeko 8etatik aurrera).

☐Administrari euskaldun bat edozein lanetarako prest. 801896.

☐Neska euskaldun bat prest dago etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Telf: 180413. Ana.

Etxebizitzak

☐Pisu bat alokatu nahi dugu Beasainen. Idatz Beasaingo 50 posta kutxara.

☐Alokatzeko pisu bat behar da Beasainen. Idatz Beasaingo 50 postakutxara.



Egutegiak



BERTSOAK

✓ Arriaran:


Uztailak 1, Sarasua anaiek bertso berrien emanaldia eskainiko dute, 22.00etan.

✓ Mutiloa:

Uztailak 2, X. Zeberio eta J.L. Gorrotxategi, 13.00etan.

✓ Olaberria:

Ekainak 24, M. Mendi-zabal, X. Zeberio eta I. Murua, 13.00etan.



Juan Herrarte beasaindarraren erakusketa dugu ikusgai oraingoan Usurbe Antzokian. Gainera, aurten bere lanak lehenengo aldiz erakutsiko ditu, Beasain, Ordizia eta Donostiako alderdi ezagunenak bilduz. Honez gain, erretratu eta bodegoietara egin duen hurbilketa arin bat erakusten du. Hau guztia ekainaren 23tik uztailaren 2ra duzu ikusteko aukera, 19.00etatik 21.00etara, eta jaiegunetan baita 12.00etatik 14.00etara ere.

MUSIKA

✓ Arriaran:

Ekainak 30, Gozategi taldea, 24.00etatik aurrera.

✓ Olaberria:

Ekainak 23, Anje Duhalde, 24.00etan. (Eguraldia txarrabada Pilotalekuan, bestela, zelaian).

✓ Ordizia:

Ekainak 24, Oroith abesbatza, Eliz Parrokian, 20.00etan.

DANTZAK

✓ Beasain:

Ekainak 22, Ukraniako

musika eta dantza folklore jaialdia Kalyna taldearekin, Usurbe Antzokian 20.00etan. Sarrera 500 pzta.

Uztailak 2, haurrentzako IV. Doinu-zahar dantza txapelketako finala, Usurbe Antzokian, 11etan. Aurreko egunean kanporaketa, San Martin Plazan, 17.00etan.

IKUSENTZUNEZKOAK

✓ Beasain:

Ekainak 30, 'Picos de Europa' diapositiba emanaldia eskainiko du Javier Fdez. Sanchezeko, Zaharren Erresidentzian, 17.00etan.

ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Ekainaren 30era bitartean, Mikel Mitxele-naren argazki erakusketa, Aterpe Tabernan.

Ekainaren 23tik uztailaren 2ra bitartean, Juan Herrarte Azpeitiaren erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Uztailaren 1etik 21era bitartean, Sol Narroren erakusketa, Aterpe Tabernan.

✓ Ordizia:

Ekainaren 30era bitartean, Rafael Cresporen pintura erakusketa, Barrenan.

Diseinu Grafikoa eta Publizitatea

Diseinu Grafikoa

Logotipoak, Katalogoak, Liburuskak, Packaging, Buzoiaketak, Txartelak, ...e.a.

Serigrafia

Poloak, Kamisetak, Txanoak, Jaietako Zapiak, Boligrafoak, Pins, Piskailuak, ...e.a.

Errotulazioak

Ibilgailuak, Denda eta Enpresak, Seinaleztapena, Argizkoak eta Neonezkoak.



ORDIZIA ☎ 16 12 87 - PRUEBAS EN 24 HORAS - LEGAZPI ☎ 73 43 61

SAN JUAN SUA

✓ Beasain:

22,00etan, erraldoi eta buruhandiekin gaueko irteera Plazatik Barrendainera. 22,30etan, euskal dantza jaialdia, Barrendain Plazan. Ondoren San Juan sua piztuko da. 23,00etan, "Tirri Tarra show" musika ikuskizuna.

✓ Ordizia:

Garagartza Plazan, 22.00etan. Ondoren dantzaldia.

SAN PEDRO SUA

✓ Ordizia:

Garagartza Plazan, 22.00etan. Ondoren dantzaldia.



ZINEA

✓ Ordizia:

Ostirala 23, "La ultima batalla", 10,15.

Larunbata 24, "Quemados por el sol", 7,30-10,15.

Igandea 25, "La ultima batalla", 4,45-7,30-10,15.

Astelehena 26, "La ultima batalla", 7,30.

Ostirala 30, "Historias de Kronen", 10,15.

Larunbata 1, "Historias de Kronen", 7,30-10,15.

Igandea 2, "Asterix en America", 4,45; "Historias de Kronen", 7,30-10,15.

Astelehena 3, "Historias de Kronen", 7,30.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Ekainak 25, Zugarmurdi-Sara.

Ordiziako mendizaleak:

Ekainak 24, Ordizia-Orio.

Uztailak 2, Amezketa-Illarazu.

Idiazabalgo mendizaleak:

Uztailak 1 eta 2, Uzturre-Leitza (gazteen akanpaldia).

GOARDIAKO BOTIKAK

Ekainak 23: Urbizu; *24-25*: Azpilikueta; *26*: Atorrasagasti; *27*: Azpilikueta; *28*: Jauregi; *29*: Laurnaga; *30*: Cuesta; *Uztailak 1-2*: Jauregi; *3*: Arriola; *4*: Urbizu; *5*: Atorrasagasti; *6*: Azpilikueta.



Porru landara ugari saldu da

Bertako azak, eta kanpoko uztapikuak eta Gernikako piperrak izan ziren azkene-ko azokan azaldutako produktu berriak. Azak 100-125ean saldu ziren, uztapikuak 500ean eta Gernikako piperrak 150ean dozena. Bertako baratze-ko lekak egon omen ziren salgai (425). Bestetik, porru landara ugari saldu zen (300ean zientoa), garai-garai-kanpokoak.

Gainontzean, bertakoe-tan, barruko lekak 350-425ean saldu ziren, ilarak 400-425ean, tomatea 250-300ean, baba txikiak 150ean, gereziak 350ean eta marrubiak 500ean.

Kanpokoetan, albertxikuak 250-350 pezetan saldua ziren, briñoiak 300-400ean, meloia 150-200ean (behera), udareak 200-250ean, patata 75-90ean (behera), piper berdea 250-300ean (gora), tomatea 150-250 pezetan

(behera), gereziak 350-550ean (behera), Zelanda Berriko kiwiak 250-350ean (gora) eta naranjak 180-240ean (gora). Marrubi, pina eta berenje-narik ez dago jada.

Abereetan, untxi eta antxumerik ez zen azaldu Ordizian. Arkumea berriz (54 buru), 560an saldu zen.

Perretxikuei dagokien, zizak (100 kilo) 1.000-3.500 pzta. bitartean saldu ziren, eta onddoak (60 kilo), 1.000-3.500ean.

Arrainetan azkenik, hegaluzea 1.400ean saldu zen, legatza 1.750ean, antxoila 1.140an, itsas-oilarra 1.120an, mihi-arraina 1.690ean, izokina 1.350ean, txitxarro txikia 550ean eta handia 750ean, zapoa 1.230ean, bixigua 2.000an, antxoak 580an eta pota 730ean.

Ana Irastorza



-Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
-Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserri-ko oilaskoa, arkumea...
-Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batz bestea.

MANDUBIKO BENTA

Jatetxea

Mandubiko gainean, Urolatik Goierri-ko bidean
Tfona: 88 26 73



*Xabier Gartzia
(Beasaindar irakasle
eta idazlea)*

***“Kolera,
malaria, eta
beste izurri
batzuek bizirik
bazterrik
txiroenetan
bakarrik
badaude ere,
HIESa
naziorik
aurreratuenetan
ere ematen
da”***

Arestian egunkariak barreiaturiko Jon Salaberriren argazkia daukat begien aurrean. Aurpegi maxkala du agerian, nozitutako gaitzaren ispilu. Begirik kendu gabe begiratzen digu, tinko, begi irten eta betzuloei darien suak gizartearen kontzientzi zuria erre nahiko bailuen. Begi horiek galdezka ari zaizkigu “uste al duzue HIESak zuengandik eraman nauen arte bizimodu duina eskaini zenidatela?”, eta baita aholku-eske ere “bazter guztietara hedatu eta lau haizeetara zabaldu HIESaren gaineko informazioa, jendea, jakinaren gainean egonda, gaitz beldurgarri horren atzaparretan eror ez dadin”.

Beldur naiz, gaur gaur bezala, gizarte honek Jonen galderarekiko tajuzko erantzunik ez ote duen, bai baitakit hainbat gizarte-esparrutan (hainbat eskoletan oraindik...) HIESak jotakoak nola bazterten diren. Hobe dut, beraz, galdera horri erantzun zuririk ez ematea, eta, besterik ezean, bere aholkua gogoan hartuz, HIESari buruzko informazio-hazi batzuk ereitea. Primeran datozkit horretarako “Fundación La Caixa”k euskal eskoletan banatu berri dituen liburuxken berri ematea: a) Ezaguera etiko-soziala eta HIESa. Norbanakoa eta gizarte gaixotasunaren aurrean. b) Ezaguera zientifikoa eta HIES. Inmunitate-sistema. d) Ezaguera historiko-kulturala, epidemiak eta HIESa sistema. e) Programa eta bere proposamenak. Liburu horiekin batera datoz HIESari buruzko bideo bat, muralak... Materiale horretatik egingo dut entresaka (matarrasa ere egingo nuke gustura, bikain-bikaina baita materialea) Jonen begiei darien eskea bete asmoz. Hemendik aurrerako guztia plagio hutsa duzue, beraz, baina, Bernardo Atxagaz gogoratzen naitenez, (oroitu “plagiatzearen” aldeko bere hitz gogoangarriak), behingoagatik plagiatzeak zentzurik baduela uste dut.

HIES: jakitea lagungarri

HIESa (Hartutako Imuno Eskasiaren Sindromea) ez da edonolako gaixotasuna, epidemia baizik. Epidemia deitzen baitzaio denboraldi labur batean elkarren inguruan bizi diren pertsona asko jotzen duen gaixotasunari. Gainera, HIESa herrialderik aurreratuenetan ere epidemia da, eta horixe dugu HIESaren eta gainontzeko epidemien arteko lehen diferentzia nabaria. Horrekin esan nahi dut kolera, malaria, eta beste izurri batzuek bizirik dirautela oraindik, baina munduko bazterrik txiroenetan bakarrik. HIESa, berriz, lehen esan bezala, naziorik garatuenetan ere ematen da. Bigarren diferentzia itxaropenezko gertakari bat da: ia gaixotasunaren hastapenetik ezaugu izan da zerk sorrarazten zuen eta ondorioz kutsadura saihesteko neurriak ezarri ahal izan dira.

Munduan HIESak jotako pertsonen kopurua ezagututa, izuaren izuz inoren ileak laz daitezke agian. Osasunerako Mundu Erakundearen datuen arabera, 1994ko erdialdean Europan 160.000 kasu inguru ziren; 400.000 Estatu Batuetan; 480.000 Hego Amerikan; 250.000 Asian; 5.000 Ozeanian eta 2.700.000 Afrikan, hau da, lau milioi kasu mundu osoan. Baina seropositiboen kopurua 17.000.000tik gorakoa omen da, Afrikan bakarrik 11.000.000.

Arriskuak ebitatuko badira, gaixotasuna nola transmititzen den jakitea garrantzitsua da, eta oraindik inor ezjakinean balego ere, hona hemen HIESa transmititzeko bideak: a) sexu bidezko transmisioa; b) xiringak, orratzak eta tresna kutsatuak el-

karbanatuz, odolaren bidezko transmisioa; d) kutsatutako amak fetuari transmititzea, hau da, amaren esnearen bidezko transmisioa. Oso aintzakotzat hartu behar da HIESa gizon-emakumezkoen arteko sexua praktikatzan denean transmiti daitekeela, eta ez bakarrik, hasiera batean pentsatzen zenez, gizonezkoen arteko sexua jokuan denean. Gainera, sexu bidez, pertsona heterosexualen arteko transmisioa areagotzen ari da mundu osoan.

HIESa sor dezaketean eta sortzeko arriskurik ez duten beste zenbait iturri eta bide azalduko ditut hemen (azalpen luzeago eta zehatzagoa nahi izanez gero, interesa duenak HIESari buruzko informazioa banatzen duen elkarte edo bulego ofizialen batera jo beharko du). Musu emateak eta laztanak egiteak ez dute kutsatzeko arriskurik sortzen. Xiringak elkarbanatzea, ordea, arriskutsua da oso. Hortz-eskubilak eta bizarra mozteko aihotzak elkarbanatzen direnean, badago kutsatzeko arrisku teorikoa, nahiz eta ez den kasu zehatzik ezagutzen. Tresnak esterilizatzeko ardura izanez gero, akupunturako orratzak ez dira arriskutsuak, ez odontologoaren tresnak, manikuran erabiltzen direnak, eta abar; ez tatuaiak egiteko edo belarri-gingilak zulatzeko praktikak ere.

Ondorio gisa, gogoan hartu HIESaren birusa ez dela eguneroko iharduera gehienetan zehar transmititzen. Horregatik, HIESaren birusa duten pertsonen eguneroko ihardunean, lantokian edo eskolan, bizimodu erabat normala egin dezakete, eta ez dute HIESa transmititzeko inolako arriskurik sorrarazten. Oraingoz prebentzio eta ezagutza dira HIESa geldiarazteko eta elkartasunik gabeko erreakzioak eragozteko era bakarra. Ikerkuntzak aurrera darrai, baina HIESaren aurkako borroka guztion baitan dago.

Egunon Txindoki!

Ekainak 14, asteazkena, goizeko hiru t'erdia, begiak hazi-hazi eginda, ahozabalka, hile harroak, mendirako botak, motxila bizkarrean, umorea eta... ilargi betea. 24 lagun, neska eta mutil, goierritarrak eta Goierri kanpokoak, euskaldun zahar eta berriak, batzuk besteak baino gazteagoak, baina denak gazteak, eta mendizaleak. Kotxeak hartu eta berehala ginen Larraitzen. Gora abiatu eta bi ordutako hanka-jokuaren ondoren, izerdi patsetan, Nñarri tontorrean ginen.

Ilargia kuriketan ibili zen, jostari, hodeiek uzten ziotenero, guri bidea argitzera agertuz. Goizeko seietan, asteazken gorrian, urdaiazpiko-gozo piska bat, txokolatea eta gailetak jenez, aho-soinua eta panderoa joz, kantari, Goierri gure oinpean genuela, nahiz eta lainopetik ezin ikusi genuen, ez ginen gaizki egon, ez horratio! "Aupa Erandio, goiz dek oaindio!".

Ilargia baino lotsatiago ote da eguzkia?, ala hodeiek izan nahi zuten protagonista?... Eguna argitu zuen, baina ez genuen eguzkirik ikusi.

8.30etarako Lazkaon ginen berriro. Duxatu eta 9etarako lanean. Lanera baino Ordiziako perira gustorago joango ginatekeen, ondo hasitako egun luzeari segida hobe emanenez, baina... dena ezin da!

Joxepa Madariaga

Zer moduz moldatzen zara azterketetan?



Aitor Mendizabal
17 urte, ikaslea
Beasaingoa

Batzutan paso egiten dut azterketetaz, lasaiago hartu behar lirateke. Kopiatzen eta txuletak egiten saiatu saiatzen gara. Azterketek, kurtsoa atera eta etorkizunean lana biltzeko balio dute.



Kepa Goenaga
19 urte, ikaslea
lazkaotarra

Azterketetan ez naiz urduri jartzen. Alperrik da urduri jartzea, egindakoa eginda baitago. Beti azkenengo egunean ikasten dut. Eta txuletak egiten, beti saiatzen gara.



Ainhoa Alonso
17 urte, ikaslea
ordiziarra

3. BBB oso zaila da eta orain arte baino urduria-go nabil. Normalean azken egunean ikasten dut, azken ebaluaketan ezik. Txuletarik ez dut egiten, aurten serioago hartu bait dut.

Bitxikeria



"Ordizian", Ordiziako Merkataritza Elkar-teak bere izeneko goxokiak atera ditu, bere bezeroak "goxatu" asmotan edo. Goxokien paperean, Ordiziako Plaza Nagusiaren marrazkia azaltzen da bertan. Elkartekideen dendetan hantxe aurkituko dituzu eskura. On egin!

EZ EGON BEGIRA !

Z·M

Gipuzkoako Foru Aldundia
MUSEO · ZUMALAKARREGI · MUSEOA
Ormaiztegi · Gipuzkoa
Diputación Foral de Gipuzkoa

Casa · Iriarte Erdikoa · Etxea
20.016 Ormaiztegi · Gipuzkoa
Tlf.: 943 · 88 99 00
Fax: 943 · 88 01 38

ZATOZ ETA PARTE HAR EZAZU

- **IBILBIDEAK:** Museoan eta Goierriin barrena.
- **LANTEGIA:** Jolasean ikasteko ariketak.
- **ZUMAKIT MALETAK:** Mailegua dohain.
I "Jazkien Baula"
I "Euskal komunikabide eta garraiok 1788/1865"
I "XIX. mendea, bi munduen arteko zubia"
- **ARTXIBO ETA LIBURUTEGIA:** XIX. mendeko agiri, irudi, aldizkari, liburuak...
- **ARGITALPENAK:** Aldizkari, foileto, katalogo, bideoak...
- **IKERKETA BEKAK, ERAKUSKETAK...**

BISITA ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera: 10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.

Larunbatetan: 10etatik 14etara eta 15'30etatik 18'30etara.

SARRERA DOHAINIK



MUJIKI



BEASAIN

☎ 88 74 00

Ba al dakizu?

ALKATE BERRIAK

aukeratu ziren ekainaren 17an gure udaletan. **Altzagan** Imanol Mujika (Altzagako Artea Taldea) dugu alkate; **Araman** Joakin Mujika (Aramako Herri Batzarra); **Ataunen** Aitor Auzmendi (Herrigin-tza), **Beasainen** Jon Jauregi (EAJ), **Ezkio-Itsason** Mari Isabel Olanga (Herrikideak); **Gabirian** Xabier Murua (EA); **Gaintzan** Inazio Jabbier Garmendia (Gaintzako Herria Batzen); **Idiazabalen** Antton Iri-zar (EA); **Itsasondon** Joxe Mari Otegi (HB); **Lazkaon** Iñaki Es-tensoro (EAJ), **Ligorretan** Jose Inazio Iturrioz (EAJ); **Mutiloan** Jon Ugalde (Mutiloako Herri Kandidatura); **Ola-berrin** Agustin Agirre (Olaberriko He-rri Elkarte); **Ordizian** Juanbi Eraus-kin (EAJ); **Ormaiztegin** Martin Perez de Albeniz (EAJ); **Seguran** Karmen-txu Etxeberria (EA); **Zaldibian** Iñaki Elizegi (HB), **Zegaman** Mari Asun Mendizabal (EA); eta **Zerainen** An-tonio Garcia (Zeraingo Herri Kandida-tura).

ORMAIZTEGIKO ZU-BIA.

Aitziber Murua Ormaiztegi-ko kronistak adierazi digunez, zubi berri-ri iritsi zaio oraingo honetan lanerako garaia. Lehen trena ekainaren 18an



igaro zen Irun-Madril aldeko tren le-rritik. Beste lerroa, Madril-Irun nora-bidearek dagokiona, oraindik ez da martxan jarri, eta zubi zaharretik iga-rotzen dira. Hala ere badirudi epe mo-tzean bi norabidekoak behar den beza-la, zubi zaharretik pasatzen hasiko di-rela. Beraz zubi zaharrari jubilatze-ko egunak besterik ez zaizkio gelditzen.

SENDAGAIEN BILKE-TA BEREIZTUA

bultzatu nahi du Sasieta Mankomunitateak. Kadukatu-takoak edo behar ez diren sendagaiak, farmazietan dauden edukinontzi txu-rietan bota behar dira. Honela, oraindik ere erabilgarriak diren sendagaiak Hi-

rugarren Mundura bidaliko dira eta kadutatakoak berriz, behar bezala berziklatuko dira. Esprai eta sen-dagaiak izan gabe farmazian ero-sitako produktuak (kremak, txan-puak...) ez dira edukinontziotan botatzekoak.

CAF-en irabaziak eta

eskariak gorantz doaz etengabe. Ekainaren 3an egindako akzionis-ten batzarrean esandakoen arabe-ra, iazko fakturazioa 40.160 milioi pezetakoa izan zen, 93an baino % 1,1 gehiago eta 90ean baino % 100 gehiago. Dena den, eskariei dagokien igoera oraindik handiagoa izan da, iaz % 20,9an igo baitzen. Eskaririk gehie-nak atzerititik datozkio CAFi. Erresu-ma Batua, Herbeherak eta Hong Kon-gerako trenak egin beharko ditu dato-zen hilabeteetan.

SEI BEHI IHESIAN.

Ba bai, aizue! Aitor Calvillok jakinarazi digunez, Hilak 12 egun betetzen zitue-nean, goizaldean, Tolosako hiltegitira bidean zihozela, kamioitik ihes egin eta herri inguruetan ibili ziren 6 behi paseatzen, herritar askoren ikara eta harridurarako. Beren etorkizun beltzaz jabetuta sobrare, kamioiaren oholak apurtu eta ihesi joan ziren. Hilerri in-



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

RENAULT ORDIZIA GOIERRI AUTOAK

(Lehen Garaje Goyerri)

Bere bezero eta lagunei jasotako konfidantza eskertu nahi die elkarte berria eratu ondoren

Hobetzeko beti egin dugun ahaleaginean zera eskaitzen dugu:

Zerbitzu hobea kostu gutxiagoan

Ezarritako pieza eta akzesorioetan deskontuak

Zaldibiako bide-gurutzea, z/g 882005 - 881073 ORDIZIA

gurura iritsi ziren abereak, eta han herriar bat erasotu zuten. Ez zen ondoriorik izan, ordea. Ondoren, behi bat gainontzekoetatik bereiztu eta herri-gunera hurbildu zen. Azkenean, Euskal Herri kalean harrapatu eta bertan hil zuten jabeek. Gainontzeko abereek mendi aldera jo zuten eta arrats partean jaso zituzten.

OMUTILOA. Osasun zerbitzuak aldaketa izan du ekainaren 13az geroztik. Aldaketen arabera, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 3etatik 5etara eta larunbatetan, goizeko 9etatik 5etara osasun zerbitzua Beasaingo anbulategian izango da. Familiako medikua eta praktikantea, ohizko kontsultegian egongo dira, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 3rak bitartean.

OMZUMALAKARREGI
MUSEOAK antolatutako Ikerketa Historikoa Sustatzeko Laguntza lortzeko deialdian, 280.000 pezetako dirulaguntza, Juan Carlos Morak bidalitako La guerra de la Convención y la Desarticulación social de Gipuzkoa lanari eskaintzea erabaki da. Proiektuak, aipatu gerraren ondoren Gipuzkoan baztertutako gizataldeek jasan-dako egoera aztertzea du helburutzat. Guztira 11 proiektu aurkeztu dira deialdi honetara.

OPATXI ZUBIZARRETA idazleak 'Aladin' ipuinaren edizioa osatu du, Pamiela argitaletxearekin. Duela bi urte, 'Ali Baba eta berrogei lapurrak' itzuli zuen ordiziarrek, 'Mila gau eta bat gehiago' arabiar ipuin bildumari hasiera emanez. 'Aladin' da bigarrena, eta honen ondoren 'Sinbad' ipuina itzultzeko asmoa du trilogia osatzeko. Jatorrizko testuari fideltasuna gordetzeko asmoz, nahiz eta pasarte batzuk juduen edo emakumeen aurkako iritziak plazaratu, bertan mantentzea erabaki du Zubizarretak.

OEKAITZ GOIKOETXEA beasaingar bertsolariak 2. egin du Euskal Herriko VII. Eskolarteko Bertso Txapelketan, 15 eta 18 urte bitartekoen artean.

OIÑAKI AIERBEK utzi egingo du Beasaingo Musika Eskolako Akordeoi Orkestraren zuzendaritza. 1981ean sortu zuen ordiziarrek akordeoi orkestra, eta bai Euskal Herrian, bai atzerrian ere, hainbat kontzertu eman eta lehiaketetan parte hartu dute. Dena den, Iñaki Aierberen lekukoa, Lurdes Lerma ormaiztegiar orkestrako kideak hartuko du.

OGORKA GARMENDIA, Ordiziako eskubaloit taldeko jokalaririk, jubenil mailako Gipuzkoako se-

lezioan parte hartuko du. Aurtengo denboraldian, bigarren goleatzailerik onena izan da.

OPISU JAURTIKETA. Maite Telleria 14 urteko segurarrak, Euskadiko pisu jaurtiketako urrezko domina lortu berri du. 9,50 metrorekin, baina bere markarik onena, Ordiziako Olinpiadetan lortu zuen, bola 9,71 metrotara boteaz. Iker Sukiak ere Euskadiko marka hautsi du berriro, 17,13 metrotara bota zuen bola.



OIÑAKI AZURMENDI, Arriarango aizkolariak, 2. postua lortu berri du Gipuzkoako III. mailako aizkolari txapelketan. Lehia gogorra izan zuen Arria V.a txapelkunarekin. Hone-la, bigarren mailan aritzeko txartela eskuratu du arriarandarrak.



✓ Eguneroko menua, 750 pzta.
✓ Karta, batzaz beste, 2.000 pzta.
☎ 18 00 19 ATAUN S. Martin



Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arteak)
Tfnoa.: 16 11 05 BEASAIN

HORTZ KLINIKA

RUIZ VILLANDIEGO eta PARDO MINDAN Doktoreak



- * HORTZEN EDERKUNTZA
- * HORTZ EZARKETAK
- * MATRAIL-HEZURREKO ARTIKULAZIOAREN TRATAMENDUAK
- * PROTESIS FUNTZIONALAK

Andra Mari, 7 - 1. A BEASAIN Tfnoa.: 88 07 83

Aspace: 25 urte Gipuzkoarekin

Garun-elbarrituen alde lan eginez 25 urte. Guraso talde baten borondate sutsuarekin hasi zen dena. Beren seme-alabek zituzten beharrei egokitutako tratamendu egoki bat izan zezaten lan egin eta Aspace izango zenaren lehen haziak erein zituzten Donostian. Gaur egun probintzi guztian zabalduta dago eta 25. urteurrena dela medio aukera ona iruditu zaie beren buruaz hausnarketa ttiki bat egitea.



G.- Zer da Garun-elbarritasuna?

E.- Arazo psikikoa eta mugimenduari dagokiona nahastu ohi ditu jendeak. Sarritan, pertsona bat gorpildun aulki batean dagoela eta aurpegi-eskuekin zeinu arraroak egiten dituela bakarrik ohartzen da jendea, buru-ahalmen ona duen pentsatu gabe. Garun-elbarritasuna dutenen artean desberdintasun handiak daude (batzuk ibil daitezke, beste batzuk ez; batzuei ulertzen zaie esaten dutena, beste batzuei ez). Ahalmen intelektualak ere neurri desberdinetan gordetzen dituzte. Laurdenak gutxi gorabehera ahalmena gordetzen du eta gainontzekoek buru-atzerapena azaltzen dute, arina, ertaina edo larria izan daitekeena. Horrek, jakina, pertsona hauek desberdinak direla eta erantzun berezia behar dutela pentsatzera behartzen gaitu.

G.- Nola dago antolaturik Aspace?

E.- Zerbitzu asko eta era askotarikoz horniturik dago: diagnostikoak egiteko zerbitzua, haurren estimulazio goiz-

tiarra burutzekoa, heziketa berezira-koa, eguneko zentruak deitutakoak (pertsona helduentzat), bertan lanean aritzekoak, bertan bizitzeko egoitza bat... Aspacen 150 pertsona aritzen gara lanean: zuzendaritza, mediku, pedagogogo, psikologo, logopeda, fisioterapeuta, e.a., denok ere guk atenditzen ditugun pertsonen osasuna, baldintzak eta etorkizuna hobetzeko ahaleginean gabiltza. Esandakoa Donostia, Irun, Zarautz, Azpeitia, Bergara, Urretxu eta Beasaingo zentruetan burutzen da.

G.- Ba al dago ebitatzerik Garun-elbarritasuna?

E.- Aspace sortu zen garaian, Garun-elbarritasuna istripu baten ondorioz garunean izandako ezbehartzat jotzen zen. Ezaguna zen istripu edo garuneko kalte hori, pertsonalitatearen inguruko denbora-tartean ematen zela. Baina, zein zen ezbehar horien arrazoia? Au-

rea har al zekiekeen? Kaltetutako haurren egoera ebitatzeko buru-belarri aritu ziren gurasoak. Aditu eta herri-tarrei zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina bat egin zen, "Nacer en Guipuzcoa" liburua argitaratu zelarik. "Mundura jaio" laburmetraia ere lurraldeko zine ugaritan eman zen ikustera. Horien aurretik "Perinatalidad y Prevencion" eman zen argitara. Lan horiei eta beste batzuei esker jatorri perinataleko minusbaliotasunak erruz gutxitu dira urteotan.

G.- Zertan da elbarrituon gizarte-integrazio eta normalkuntza?

E.- 70 hamarkadatik aurrera garatzen eta zehazten doan kontzeptua da *normalkuntza*. Diskapazitatearen bizitza eta garapenaren zenbait esparrutan, hala nola eskola, lan eta etxebizitzara ahalik eta baldintzarik normalenetan sartzea da *normalkuntza*. Aspacek as-



**HIZKUNTZAK
UDAN**

Munduko hizkuntza
zentruen erakunde
handiena

**IKASTARO TRINKOAK
INGELESA eta ALEMANIERA**
Egunean bi ordu, goiz eta arratsalde,
uztaila eta iraila

ORDIZIA
Elkano, 8
☎ 88 11 37

BEASAIN
JM Iturrioz, 11
☎ 16 05 72

ZUMARRAGA
Iparragirre, 8
☎ 72 22 23

mo horiek egia bihurtu nahian, eskola mailako integrazioari bultz egin dio, Jaurilaritzaren Hezkuntz Sailarekin batera. Ildo beretik doaz elbarritasuna duten helduak lan mundura sartzeko eskaintzen diren zerbitzuak eta kirol arloan zein aisialdian egiten diren ekintzak.

G.- Urte gutxiren buruan zabaldu da Aspace. Zer on ekarri die elbarritu hauei eskualdeka zabaltzeak?

E.- Bizpahiru alderdi baikor adierazi gabe ezin utzi. Aurrena, familien eta profesionalen arteko *harremana* errazagoa eta lotuagoa egiten da. Ezin dugu ahaztu Garun-elbarritasunak jotakoari ematen zaion laguntza bizi osorako proiektua dela, familiak eta adituek etengabe murgildurik daudelarik kontratuzko harremanak dakarren lan soila baino haruntzago doan loturaz. Bigarrenik, familia beraien arteko *harremana*. Erakundea gehiegi hazten bada, komunikazioa galtzeko eta proiektu amankomun baten ideia elkartzaila desagertzen joateko arrisku handiagoa dago. Alderdi hau oinarritzkoa da eta, zentru txikietan denek elkar ezagutzen dutenez, errazagoa da sor daitezkeen arazoei erantzuna emateko jarrera bateratua hartzea.

G.- Helburuak zehaztutakoan, ze kasu egiten diozue familia- giroa zaintzeari?

G.- Familia-giro onena lortzen saiatu gara, senitartekoen eskariak jasotzeko



bideak irekiz eta familiei lagunduz ahalik eta ongizate-egoera onenak sorzitezen. Haurrak txikiak direnean, gurasoak gure zerbitzuetara hurbiltzen dira. Zerbait serioa dela susmatzen dute, zenbaterainokoa ez. Lagundu egin behar zaie, umearen estimulu bihurtzeko. Eskola garaira iristean, eskola arruntera bideratzen ditugu ahalik eta kasu gehienak; hemen ere familiari laguntzen diogu, bide hori zaila baita. Hazten doazen neurrian, beharrak handituz doaz eta iharduera-eremua zabaldu egiten da. Aisialdiarako aukerak eskaintzen dira, aldi baterako egoaldiak egoitzetan, oporrak. 18 urterekin adin heldutasunera iristen dira legez neska-mutilak eta Minusbaliak eta pentsioaren tratamendua egin behar dira, "bere interesak zaintzeko ezgai" jo daitezkeenak ere kontutan hartu. Elkartetik lege-egoera zuzentzea

bultzatzen da, "patria potestad" eta ondasunen tratamendua luzatzeko. Erabakia hartzerakoan laguntza ematen diegu guk.

G.- Denbora berriek, betebeharrak: izan duzue lehen ez zegoen moduko tratamendu-eskaerarik?

E.- Bai. Azken 5 urteotan istripuz sortutako buru-zauridun pertsona helduak hurbildu dira gure Elkartera. Eragin-mota berri samarra dugu istripuen hau, baina gure gizartean minusbaliarik gehien sortzen duen arrazoia. Poliki poliki minusbaliak honen ezagutza sakontzen joan da Aspace. Garun-lesioak zituzten 70 pertsonarekin eta 118 senitartekorekin egindako ikerketa baten bidez, biztanleen atal honi erantzun eman dakiokkeen formula bat tajutu ahal izan da.

G.- Zein izango da Garun-elbarrituen etorkizuna?

E.- Garun-elbarrituen guraso talde baten kezkak ekarriko ditugu hona. Honela idazten zuten: "Gurea bezalako seme-alabaren bat duen guraso batek bakarrik daki 20, 30, 40 urte hauetan eman beharreko dedikazio eta eginkizunen berri. Non eta nola egongo dira gure seme-alabak gu falta garenean? Gizarte-baldintzak aldatzen doazela esaten digute, gero eta solidaritza handiagoa dagoela eta erantzun-aukerak zabalagoak eta hobeak izango direla". Hala bedi.

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

**Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak**

**Euskalerrria Kalea
Industrialdea**

☎ 88 04 15 ORDIZIA

☎ 16 07 07 OLABERRIA

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia, 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58 ☎ 88 72 79 ☎ 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

Benetako jaiak San Joanetan

Lehen ere tokatu izan dira jaiak bi asteburutan, baina, festa-festak, San Joanetan datozenak dira, aurtan San Joan bezperan hasita.

Arbola jartzea eta sua

Ekainaren 23ko ekintzarik aipagarrienak dudarik gabe. Duela urte gutxi San Joan arbola gruaz jartzen hasi arte, hainbat herritarrek erreboteko barandatik sokaz tira eginda zuzendu eta jarri ohi zuten. Orain 50en bat urte Martxeliño Aldanondo "Meiño zaharra" bertan arbola jartzen aritu zirenei pitxarretik ardoa banatzen ari zitzaizela, inguruan botatako altxaferoetako bat okertu, eskuan zuen pitxar ardo barruan sartu eta jata bertan lehertu omen zen. Han izan omen ziren istiluak, bi litro ardo izorratzea garai hartan...

Herrian zein herriko baserrietan ere San Joan sua izango da festetako momenturik berezienetakoa. Aurtan, Elorri Kultur Elkartek antolatuta azken 3 hilabeteetan dantza ikastaroetan aritu direnak izango ditugu suaren inguruan dantzan. Besteak beste hortxe dantzatuko dute San Joanen zortzikoa.

20,00etan urteroko ikuskizuna bihurtu den umeen tanborrada egingo da, "Oria" txarangarekin. Guztira 116 umek parte hartuko dute. Maiatzetik astelehen eta asteazkenetan aritu dira ensaiatzen, aurtan ama talde baten ardurapean. Aurtengorako karroza berri du eta tanbor berriak ere ekarri dira. Jarraian festetako pregoia irakurriko da, aurrez egingo den ekitaldi "sorpresa" baten ondoren. Hau amaitzean festetako altxaferoa botako da.



San Joan bigarreneko koadrila festa albaitheroneko neskamea begira dutela.

Elorri jartzea eta San Joan prozesioa

Zenbaitzu oraindik erretiratzeko dandela, aintzinako ohitura jarraituz, kale zein baserrietako atari guztiak elorri-zuriz apainduak azalduko dira, gaitzen eta begikoaren kontrako babesgarri, kondairak dioenez.

San Joan egunez santuaren irudia, dantzari jantzitako 4 gaztek aterako dute, meza aurretik herriari buelta emanaz egingo den prozesioan.

Bada ordea San Joan egunean ere ikuskizun gehiagorik. Eguerdiko 13,00etan herri kirolak eta S. Lizaso eta A. Egaña bertsolariak izango dira plazan. Besteak beste Jexux Mari eta Iñaki Intxausti osaba-iloba segurarrak arituko dira trontzan.

Iluntzean eta gauean zehar moztarro festa eta larunbateroko kanpotar oldea. Aurtan, azken urteetako arrakasta eskasagatik ez da helduen tanborradarik egingo.

Koadrila eguna betitik

Betidanik izan da San Joan bigarrena

koadrila edo gazteen eguna, festei alaitasunik handiena ematen dietenena alegia. Horren lekuko dira "Altza porru" koadrilak egun horretan egiten zituen juergak. Azken "Altza porru" 1957an izan omen zen. Naparraneko tabernan ikus zitezkeen.

Aurtan koadrila egunik izango ez bada ere, egongo da zerikusirik edo non parte harturik. Eguerdian eskulan erakusketa egingo da. Besteak beste bertan izango dira: talogileak, eskuargileak, margolariak, galtzerdigi-leak, trontza zorroztaileak, xestogileak, argizari eta eztigileak, denak segurarrak. Hauez gain, harigileak, danbolingileak, abarkagileak, jaboigileak, eskopetagileak, etab.

Ondoren eta aurtengo berrikuntzetako bat, herri bazkaria frontoi zaharrean. Arratsaldean San Joan bigarreneko pelota partidua. Hortxe izango dira, Berasategi, Hombre, Artola eta Etxeberria herriarrak. Ondoren "Poteo elegantea" denak dotore-dotore jantzita poteatu, afaldu eta amaitu arteko festa egiteko.

Eskulan erakusketa

Festa guztietan Kultur Etxean ikusgai egongo da herriko 32 emakumeek urtean zehar egin dituzten lanen erakusketa. 16ko bi taldetan aritu dira irailetik ekainera asteen behin bi ordu t'erdiz, batez ere, xestogintza, pintura eta hari lanetan. 3. urtea da Udaletxeak antolatuta eskulan ikastaro hau antolatzen dena, eta partaideetako batek esan digunez, datorren irailean ere berriro aukera izango dutelakoan daude.

 Joseba Telleria

GAIARA, S. L. Autobusak

Mota guztietako bidaiak:
nazional nahiz nazioartekoak
Eskatu aurrekontuak

☎ 80 14 39
ZEGAMA

☎ 88 59 69
BEASAIN



ANAIK GARAJEA

MEKANIKA ETA IBILGAILU-KONPONKETA

Guardiko Industri-Poligonoa
Tfnua: 80 11 32

IDIAZABAL
(Gipuzkoa)

Jaien egitaraua

● Ekainak 23, ostirala:

16.30etan: XXXVIII. San Joan Txirindulari proba, 1.go eta 2. mailako afizionatuentzat.

19.00etan: San Joan arbola jartzea.

20.00etan: Umeen tanberrada, Oria txarangarekin. Plazara iristean festarako pregoia eta suzeria.

23.00etan: San Juan sua, arbola bedeinkatzea eta dantzariak. Ondoren, Legazpi taldearekin dantzaldia.

● Ekainak 24, larunbata:

9.30etan: "Segurako Alborada" Kriseilu txistulari taldearekin.

10.15etan: Alkatea eta zinegotziak Elizara joango dira, "Alkate Soinua"ren doinuaz.

10.30etan: San Joanen Prozesioa eta Meza Nagusia. Ondoren hamaiketako Udaletxean.

12.30etan: San Joan Egoitzako adineko lagunei Udalaren bixita festa-oparia emanaz.

13.00etan: Herri kirolak eta bertsolariak plazan. Ondoren A. Egaña eta S. Lizaso bertsolariak.

10.00etatik 12.00etara eta 18.00etatik 19.00etara: herrialdeko Bola eta Toka.

18.00etan: Profesionalen pelota partiduak Baratze Pelotalekuan: Alustiza - Imaz Kapellan - Elkororen aurka.



1971ko San Joan bigarrenean egin zen "euskal parada"ko parte hartzaileetako bat.

19.00etan: Oria Txaranga Plaza Nagusian.

20.00etan: Mozorrotuen Kalejira Txarangarekin eta "Llunch"a Plazan.

23.00etatik goizalderarte: Jokaldi Taldearekin dantzaldia.

Oharra: 11.30etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara: Ume guztientzat Baratze Pelotaleku aurreko plazan "Pista Libre"

● Ekainak 25, igandea:

10.30etan: Kriseilu Txistulari taldearen kalejira.

11.00etatik 13.30etara: Eskulan erakusketa herriko plazan.

12.00etan: Atsedeen Elkartean jokuak: Bote, Toka eta Igela. Ondoren "moka-dutxo" jubilatuta eta pentsionistentzat.

12.00etatik 14.00etara: Herriarrentzat Toka plazan.

13.00etan: Herriko dantzariak.

14.30etan: Herri bazkaria, Frontoi Zaharrean.

18.00etan: Pelota partiduak, gazte eta afizionatu mailan.

20.00etan: Poteo elegantea. Aldi berean, buruhaundi eta erraldoiak. Eta 17.00etatik 20.00etara, tren berezia aterako da Frontoi ondoko plazatik.

23.00etatik goizalderarte: Izadi taldearen dantzaldia. Ondoren, festazale guztiak kalejira festei amaiera emanaz.

Oharra: ekainaren 25era bitartean, Kultur Etxean herriko emakumeek urtean zehar egin dituzten eskulanean erakusketa egongo da.

ELORRIPE
edarteia

☎ 801002

SEGURA

Giro
atsegina
eta
pintxo
bereziak

SANTA BARBARA
Karrozategia

Juan Mari Oiarbide

Kale Nagusia ☎ 801160
SEGURA

EROSLE
GOIKO

Zurbano, 8
SEGURA

☎ 800326



SAN ANDRESKO HEGAZTI TXOKOA

ORDUTEGIA:

LARUNBATA, 4etatik 6etara

IGANDEA, 11etatik 1etara

☎ 80 12 35 - 80 14 10

SEGURA

Kabezudo beltza: beldurgarria bezain maitagarria

Kabezudoak beti izan dira edozein jaie-tako egitararen betegarri merke, herritar eta modan pasatzen ez direnak. Bada Seguran belaunaldi ezberdinen "mitoa" izan den kabezudo bat. "Kabezudo beltza", "Berdea" edo "indioa" izenez eza-gutu izan dena, eta gaurkoek ez bezala benetako beldurra sortarazten zuena.

Beldurra, kakalarria, dardara, estua-suna, izua, panikoa... eta antzeko hitzak erabiltzen ditu hamarretatik zortzik "Kabezudo beltzak" zer oroitzapen dakar-kion galdetzean. Herritarren artean hain beldurgarritzat hartua baina aldi berean estimatua eta maitatua izan den kabezudoak ez du gaur, orduko beldur hori sor-tzen. Argazkian ikus daitekeen bezala erabat hondatua eta erretiratu dago Uda-letxeko goiko gela batean hauts eta ame-raun artean.

Uste baino zaharragoa

Herriko zaharrenek ere kabezudo hau ezagutu izan dute umetan. Bittor Antoka-lek dioenez "Sakristau zaharra" alkate egon zeneko garaian ekarritakoak izan omen daitezke. "Kabezudo horia" deitu-riko beste bat omen zuen lagun, "hurare terriblea" diote ezagutu zutenek. Kon-ponketa edo pintaketaren bat behar zue-nean Roke Antonionera eramaten omen zuten, txukundu bat eman ondoren berri-ro bere lanean jarrai zezan. Beraz, makina bat San Joan, San Antonio, Santiago eta gainerako festa ezagutua da gure kabe-



zudo hau. Sortarazten zuen beldurraz gain, korrika eta segi ere inork baino gehiago egiten zuen, bera joaten zen urrutiena eta erretiratu beranduena, eta jo berriz zeresanik ez. Kabezudo beltz jantzi ere, ez zen edozein egiten, Jexux zapatero Luix malkorra, Pedrotxikiñeko Mikel, Joxe malkorra, Patxikito, Joan Mari Argintxe, Txibi... dira jaso ditugun izene-tako batzuk. Joan Mari Argintxek dio Azpaotza txikiraino, Zubiberriraino, Futbol zelairaino, eta etxeetako ganba-retaraino ere joanda dagoela umeei segi-ka. Orain ez bezala gainera, mazkuriak erabiltzen ziren. Karnizeritik edo San Se-bastiandik hartuta, ahoz puztu, eta 15en bat egunetan lehortzen utzi ondoren so-kaz makilatxo bati lotzen zitzaizkien.

Lehen alde guztietatik beldurra baze-

rion, gaur daukan itxura ikusita pena ere ematen du. Aho ingurua galdua du, kope-tatik gorakoa orain urte gutxi jarri zioten partxe bat da eta gainerakoa ere nahiko hondatua du. Hainbat belaunaldik eza-gutu, sufritu eta maitatu duen Kabezudo beltz hau bezalakoak leku gutxitan gel-ditzen direlako eta herri patrimonioa de-lako, beste hainbat gauza bezalaxe zaindu eta gorde beharko genuke betirako galdu baino lehen.

Ondo baino hobeto ezagutu duen Joxe Intxaustik ere moldatu dizkio bi bertso Kabezudo beltzari:

Larogeitaka urtean poztu gaitun kabezudo beltzak gaur falta ditu sudur azpia baita ezpainaren ertzak bere itsusian ordea sarri sortu zitun gazi gezak eta umeen korrika aldiak ez ziren konta errezak helduek ere esaten zuten azkar kartzelan gordezak. (bis)


Lehen Seguran bere egona kartzelan ohi zuan egin irtendakoan ume guztiak tentatzen zenbait ahalegin orduan maskuri edo eskobaz jotzen saiatutzen zan fin baino inori etzigan eman hasarratzeko aina min ta konpontzea eskatzen degu gure arten bizi dadin. (bis)

IMAZ Jatetxea

Jai alaiak opa dizkizuegu!

Kale Nagusia, 27
☎ 80 10 25

SEGURA




Tfnoa.: 80 16 99

Liernia Auzoa

MUTILOA

ETXETRESNAK



Juan Migel Larrea

**ELEKTRIZITATEA
BURDINDEGIA
FRUITUAK**

☎ 80 11 74 Unzurruzaga, 5
Etxekoa: 80 01 53 SEGURA

Jaien egitaraua

● Ekainak 29, osteguna:

20.00etan: Suziriak eta kanpai jotzea festei hasera emanez.

21.00etan: Meza Santua, herriko hildakoen alde.

21.30etan: Txerriaren jaitsiera.

Arratsalde eta gauean: Arakama anai-arrebak trikitilariekin erromeria.

● Ekainak 30, ostirala:

20.00etan: Sagardo dastaketa eta txistor jatea.

00.00etatik goizalderarte, Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia. Ondoren, kalejira eta txokolate jana herriko plazan.

● Uztailak 1, larunbata:

17.00etan: Haur jolasak.


18.00etan: Bola lehiaketa. (Izen emateko epea arratsaldeko 7etan itxiko da).

19.00etan: Ardo banaketa, herri enparantzan, txistulari talde batek alaiturik.

20.00etan: Meza Santua.

20.30etan: Herri afaria, Intsausti, Etxezarreta eta Florentino Goiburu bertsolariekin eta Juanito Mendizabal txiste kontalariarekin.

00.00etatik goizalderarte: Euskal



musikaz alaituriko berbena.

Ondoren, txerri harrapaketa herri enparantzan.

● Uztailak 2, igandea:

9.00etan: Segurako Txistulariekin goizeresia.

12.00etan: Meza Santua. Ondoren, Goruntz dantza taldearen ekitaldia.

12.30etan: Toka lehiaketa, federatu gabekoentzat.

13.00etan: Zeberio eta Gorrotxategi bertsolariak. Ondoren, Arakama anai-arrebak trikitilariak.

18.00etan: Herri kirolak Mutriku eta Berriaturen arteko lehia.

Ondoren bertsolarien 2. saioa.

19.30etan: Bola lehiaketa. (Izen emateko epea 8etan itxiko da).

Arratsaldez eta gauerarte: Arakama anai-arrebak trikitilariak.

Festei amaiera emateko txerriaren erretzea izango da.

Oharrak: Afarirako izen ematea herriko Ostatu jatetxean. Tfnoa: 801166.

Tonbola izango da Apaiz-etxean.



Mutiloko Udala

MUTILOAKO SAN PEDRO JAIK

Egunero lanean eten bat egiteko baliagarriak diren herriko festak gerturatzen ari zaizkigu eta, agur bat bidali nahi dizuegu herritar eta bertara inguratuko zaretan guztioi.

Egun hauek giro onean eta alaitasunez ospa ditzagula.

Eskerrik beroena festen antolaketan parte hartu duten guztiei.



Zurbano Kalea, 10
20214 SEGURA (Gip.) 80 04 16

OSTATU JATETXEA

Festa onak pasa!

Herriko Plaza
MUTILOA

Tfnoa: 80 11 66

Festetan ondo ibili!

JOSE MARTINEZ ARROYO

BULKANIZATUAK

Marratuak, llanta eta neumatiko salmenta

☎ 88 05 66 (Tailerra)

☎ 88 16 69 (Etxea)

Iurrea Auzoa

OLABERRIA



LADA

ARANDIA

Garajea

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g

Tfnoa: 88 09 47

Iurre auzoa

OLABERRIA



Giro jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN



YURRE

AUTO-ZERBITZU GELTOKIA

24 ORDUKO ZERBITZUA

YURRE AUZOA ☎ 88 01 61 OLABERRIA

ARDOTEGIAK

— B —
ELOSEGI
— D —
E
— G —
ARACO
— S —

Poligonoa 201 Tfnoak.: (943) 88 09 79-88 80 89
Fax: (943) 88 80 89 OLABERRIA (Gipuzkoa)

Ctra. de La Puebla, s/n Tfnoa.: (941) 10 02 09
LAGUARDIA (Rioja Alavesa)



SAGARDOTEGIA

- Bataio, jaunartze, lagunarteko eta negozio bazkariak
- 2.000 pztako menu bereziak
- Karta

Sagardoa urte guzian txiritik
Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 88 20 49

OLABERRIA



OTATZA
SAGARDOTEGIA

Astelehenetan ezik, egunero irekita.
Enkarguz izan ezkerro, eguerdietan ere bai. Sagardotegiko menuaz gain, berezitasun nagusia oilasko, txahal...

☎ 80 1 7 57

Otatza baserria

ZERAIN



F. M. 89,2

STEREO

Hogeitalau, San Juan jaia
altza kukurra oilarra
egunez saltsa, gauean dantza
denok atera indarra
utzi albora samintasuna
ahaztu urteko negarra
San Juan suri piztu garra
jan edana barra barra (bis)
ikuskizunak alai disfruta
galdurik gabe iparra
festetan ere irrati hau da
itzaltzen ez den izarra. (bis)

● Ekainak 23, ostirala: haurren eguna

11.00etan: Hurrekin irteera Iurreko igerilekutik. Jokuak.

13.30etan: Haurren bazkaria, Udalak eskainita.

16.30etan: Jokuak.

18.30etan: Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoak.

19.30etan: Lora eta landareen be-deinkapena.

20.00etan: Herri mailako plater haus-keta.

20.00etan: Ohizko zuhaitz igoketa.

21.00etan: Parrilakada.

22.30etan: San Joan sua.

24.00etan: Anje Duhalde. (Eguraldi onarekin zelaian egingo da eta txarra-ekin, pilotalekuan.

02.00etan: Trikitibeltz trikitilariak. Jarraian, txerri harrapaketa.

● Ekainak 24, larunbata:

09.00etan: Goizeresia, Lazkaoko txistulariekin.


10.00etan: Olaberriko X. Txirrindulari proba.

11.00etan: Elizaren inauguraketa, Meza Nagusiarekin eta Olaberriko abesbatzak lagunduta.

12.15etan: Hamaiketakoak, Udalak eskainita.

13.00etan: M. Mendizabal, X. Zeberio eta I. Murua bertsolarien saioa.

16.30etan: Herri mailako mus txapelketa.



17.00etan: Haurrentzako jokuak.

19.00etan: Herri kirolak: aizkoran Gipuzkoatik, Olasagasti eta Arrospide eta Nafarroatik, Nazabal eta Larretxea; eta harri jasotzen Izeta Zelairen aurka.

20.30etan: Herri afaria. Izen ematea eta txartel jasotzea, Curro tabernan, Arrieta jatetxean eta Udaletxean.

23.00etan: Su festa, Zaragozana Pi-rokteniaren eskutik.

00.00etan: Erreka taldearekin dantzaldia. Bertan, moztorro lehiaketa izango da.

● Ekainak 25, igandea:

9.00etan: Goizeresia Lazkaoko txistulariekin.

11.00etan: Probintzia mailako plater hausketa.

13.00etan: Meza.

15.00etan: Plater hausketaren jarraipena.

16.30etan: Probintzia mailako bolo txapelketa. (Oharra: herriko txapelketa tirada honen barnean egingo da). Izena 18.30ak aurretik eman beharko da.

17.00etan: Pelota torneoaren finala.

18.00etan: Asto lasterketa.

19.00etan: Herri kirolak: Olaberria - Beasain.

20.00etan: Sagardo dastaketa.

OGEi S. A. L.

Eraikuntza metalikoak

Ormigoneren fabrikazioa
Ormigonatu hornitegiak
Fatxadetako jasogailuak

lurre auzoa, z/g ☎ 88 52 50 - 4
OLABERRIA 12p.k. BEASAIN

EDARITEGIA



Teléfono, 88 95 60

OLABERRIA

GARTXO JATETXEA

Gosariak

Hamaiketakoak

Eguneroko menua

Industrial Poligonoa, 118

☎ 88 13 09

OLABERRIA



JATETXEA

- Menuak "Self-service" an:825 pzt.
- Enpresentzako menu bereziak:1875 pzt.
- Asteburuetoako menuak (enkarguz):2500 pzt.
- Bankete, ezkontza, despedida eta ospakizunetarako eskatu aurrekontuak.

200 lagunentzat tokia

Merkatal Zentrua

☎ 16 02 15

OLABERRIA

ORMAIZTEGI

Xubi eta Ruben Beloki irabazle



San Andres Herri Eskolak antolatutako II. Kirol Topaketa giro ederrean eta partaidetza handiz burutu zen. Erakargarritasun handiena sortu zuena Ruben Beloki txapelkun gaztearen agerpena izan zen. Gizon hau pilotan maixu dela denok badakigun arren, zein nola giza maila duen frogatzeko aukera ere izan genuen. Benetan gizon apala, inolako trabarik jarri gabe gure herrira etorri izanak guztion eskerrik beroena merezi du.

Goizeko pilota jokoetan benjamin mailan eta nesken artean Leire eta Kizkitza izan genituen garaile. 2. Uxue eta Irati. Mutiletan Jon eta Aitor 1.go eta 2. Alex eta Ekain. Alebin mailan nesketan garaile Leire eta Kizkitza, 2. Maialen eta Ane. Mutiletan Iñigo eta Jesus Mari, 2. Aritz eta Iker. Infantil mailan nesketan lehenengo Oihana eta Maialen, bigarren berriz Alazne eta Jaione. Maila honetan bertan mutilek finala

jokatu zuten garaile Jon Azpiazu eta Aitor Arrondo gelditu zirelarik, 2. berriz, Jon Aladasoro eta Youssef Ziani. Partidua 16-12 bukatu zen.

Baina benetako arrakasta eguerdiko 12etan hasi zen pilota desafioak izan zuen. Bertan eta ia partidu osoan zehar Joxe Mari eta Rufino Satrustegi aurretik joan baziren ere, irabazleak Xubi eta Ruben Beloki izan genituen. Partidua 16-14 emaitzarekin bukatu zen.

Arratsaldean krosseko probak burutu ziren. 1.go eta 2. mailako irabazleak hauek izan ziren: nesketan, 1.go Beatriz Tomas, 2. Loubna Ziani eta 3. Ane Lapizondo; mutiletan, 1.go Urtzi Gurrutxaga, 2. Gorka Izagirre eta 3. Borja Martinez. 3. eta 4. mailako irabazleak: nesketan, 1.go Olaia Izagirre, 2. Kizkitza Arratibel eta 3. Irati Mujika; mutiletan 1.go Beñat Larena, 2. Aitor Iraeta eta 3. Aratz Garate. 5. eta 6. mailakoe-tan, nesketan, 1.go Leire Mendizabal, 2. Rosa Patiño eta 3. Ane Santesteban; mutiletan, 1.go Unai Etxarri, 2. Eneko Miaz eta 3. Jesus Mari Zufiaurre. 7. eta 8. mailakoetan, nesketan, 1.go Oihana Katarain, 2. Alazne Lozano eta 3.

Nerea Magallanes. Mutiletan, Iñigo Tejada, 2. Asier Matellanes eta 3. Youssef Ziani.

Irabazle guztiek beraien garaikurra jaso zuten, ondoren guztiek merienda goxoa dastatzeko aukera ere izan zuten.

San Andres pala txapelketa

Uztailaren lehenengo hastean hasiko den III. San Andres pala txapelketan parte hartu nahi duzuen guztientzat, izena emateko epea zabalik izango da ekainaren 30era arte, I. Murua harategian eta liburutegian. Telefonoz (160074) ere dei daiteke, arratsladeko 5etatik 7etara. Bikote bakoitzak 2.000 pezeta ordaindu beharko ditu eta ezinbestekoa izango da bikote bakoitzetik bat herritarra izatea.

Aitziber Murua



Ekainaren 11n gure herriko 12 hurrek Lierniko Amaren ermitan lehenengo jaurnartzea hartu zuten. Ormaiztegiko apaiz dugun Joxek zuzenduriko elizkizuna hunkigarria izan zen, haurtxoek beraien bertso eta abestiz une hura zein garrantzitsua zen ohar arazi gintuzten guztiok.

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
Tfn. 88.51.68
ORMAIZTEGI

GOZOGINTZA

PAGOSA

OKINDEGIA

Tfona: 885500 ORDIZIA

KOLDO TRIKITIXA ESKOLA

Giro jator eta atseginean
ikas dezazun zuk aukeraturikoa

88 50 85 LAZKAO

Udal berria



Euskal Unibertsitatara (UEU) joateko matrikula epea eta urtero bezala, Udaleko Euskara Batzordeak joan nahi duenari dirulaguntza eman-
go dio. Horretarako Beasainen erroldatua egotea beharrezkoa da eta ikasle edo langabetua izatea. Eskaera orria Euskara Zerbitzuan bete ahal izango da 9.00etatik

14.00etara bitartean. Kontuaren zenbakiarekin batera, ordaindutako matrikularen agiriaren, NANaren eta ikaslea egiten ari den ikasketa agiriaren edo langabetu txartelaren fotokopiak aurkeztu beharko dira. Eskaerak egiteko epea uztailaren 14an bukatuko da.

● 94/95 ikasturtean euskara ikasten ibili direnentzako dirulaguntzak eskatzeko epea ireki du Euskara Batzordeak. Urriaren 11n bukatuko da epea eta dirulaguntzak edozein ikastaro mota egitegatik emango da. Bete beharreko baldintzak honako hauek dira: Beasainen erroldatuta egotea, ikastaroa amaitua edukitzea eta % 80eko asistentzia izatea. Eskaera bete nahi dutenek, kontu-korrontearen zenbakiaz gain, NANren fotokopia, matrikula agiriarena eta asistentzia frogatzen duen agiriarena aurkeztu beharko ditu Euskara Batzordean. Langabetua izanez gero, langabetu txartelaren fotokopia ere aurkeztu beharko da.

Ekainaren 17an osatu zen datozen 4 urteetarako Udala. Inongo ezusterik ez zen izan, eta Jose Luis Arrietak, Jon Jauregiri (EAJ) pasatu dio lekukoa. Zinegotziak berriz, EAJko Arantxa Aseginolaza, Ana Isabel Asla, Emilio Valles, Patxi Plazaola eta Jose Antonio Guirado; HBko Txemi Arteaga, Andoni Antxia eta Miren Arrate Izagirre; PSE-EEko Jose Luis Elorza, Fernando Boada eta Alfonso Segade; Eako Idoia Arratibel, Josi Insausti eta Jose Mari Sarasola; PPko Julio Herreros eta IUko Eduardo Fernandez dira. Guztiek euren karguei zin egin zieten.

Dena den, HBko zinegotzia den Txemi Arteaga presoa izan zen eguneko protagonista. Zinegotzi aukeratua izan denez, ordu batzuz gutxienik, kartzelatik atera eta Beasainen izan genuen. Hori dela eta, jende ugari bildu zen Udaletxeko Batzarre-Aretoan, ongi etorria eman, eta txalo eta animoak ematera. Ia 2 urtez preso, Albaceten preso dago, eta maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean egindako epaiketaren epaiaren zain dago beasaindarra.

Euskara Batzordearen dirulaguntzak

● Ekainaren 12an zabaldu zen Udako

Sanpedroak Arriaranen

Sanpedroak bertantxe ditugunez, arriarandarrek gustura prestatu duten egitarauaz gozatzeko ordua iritsi da. Auzoko gazteen lana azpimarragarria da benetan. Egitaraua jarraian duzue, eta giro ona ziurtaturik dago.

Ekainak 29, osteguna: 14.00etan: Herri bazkaria. Ondoren Mus eta puntu txapelketa. **18.00etan:** Kaxiano.

Ekainak 30, ostirala: 21.30etan: Gazte afaria. **00.00etatik goizalderarte,** Gozategi taldea.


Uztailak 1, larunbata: 17.00etan: Kadeteen XIV. Usurbe Txirrindulari proba. **19.00etan:** III. Mandubi igoera, federatu gabekoentzat. **22.00etan:** Sarasua anaiek bertso berrien emanaldia eskainiko dute. **00.00etan:** Gaupasa, Zapotxin taldearekin. **03.00etan:** Oilasko erreka dohainik, nahi adina.

Uztailak 2, igandea: 19.00etan: Herri kirolak: Arriaran - Olaberria. **20.00etan:** trikitilari gazteen saio berezia. **Oharra:** Txoznak izango dira.

Izaskun Salazar




Alkartasuna Lizeoko areto futeboleko nesken taldeak Gipuzkoako Eskolarteko futbol txapelketa irabazi du. Eta ez era makalean, Eibarrren aurka 11-1 irabazi zuten. Bi urte daramatzate kirol honetan jokatzeko, eta bietan txapeldun izan dira. Zorionak!



Ostiral eta larunbatetan 9etatik 11etara irekita, txotxetik urte guztian.

Edozein egunetan, edozein janari prestatzen da enkargatuz gero: bataio, bazkari...



Gerriko ikerlan sariak banatu ziren

Ekainaren 9an Udaletxe-ko areto nagusian ospatu zen VI. Gerriko Ikerlan Sarietaren sari banatzea. Jende kopuru polita bildu zen ekitaldian. Bertan lehen saria Beasaingo Joxe Migel Azurmendi-
ren Goierriko euskarari buruzko lanarentzat izan zen. Aipatu Azurmendi 17 urtez kartzelan da-goela eta bertan lizen-tziatu zela Euskal Filo-logian. Saria bere amak jaso bazuen ere, telefo-noz Cordobako kartzela-tik grabatuko hitzak izan ziren bertan.

Bigarren saria Ataungo Nekane Ur-dangarin eta Leire Munduate ama-ala-bentzat izan zen. Hauek aurkeztu zuten lana Ataungo karobizuloei burukoa zen. Hirugarrena berriz, Xabier Azurmendi-
ren "San Adrian eta inguruko kondaira" lanarentzat izan zen. Azken hau ez zen sari banaketara azaldu.



Epaimahaiaren buru Joxe Martin Apalategi zutela, Martin Mendizabal historialaria, Luis Mari Zaldua etnolo-goia eta Pilartxo Etxeberria fonetikala-riak izan ziren lanak aztertu eta saridu-nak aukeratu zituztenak. Egileak berriz, epaimahaikideen laguntzarekin beren lanak txukundu eta hobetzeko prestatu ziren, gero argitaratzeko.

Urbasako langileak greban

Ekainaren hasera ezke-roztik Atenciones Meta-lurgicas Urbasako langi-leak lantegiko ate aurrean daude greban. Konbenio hobeia lortu nahiak bul-tzatu dituzte dauden egoerara. Bide batez, osasunarentzat txarra den presio psikologiko han-diko lan-baldintzak in-posatzen dizketiela salatu dute, baita ere J. R. Ro-driguez, asanbleak onar-tu ez arren, tailerreko arduradun bezala izendatu izana. Langileen esanetan ka-leratze mehatxuak etengabeak izan dira eta enpresako materiale guztia atera eta lanak beste lantoki batzutan egiten di-tuzte, grebak inolako eraginik izan ez dezan.

M. A.

ZALDIBIA

Gorka Lasa, txapeldun paletan



Gorka Lasa Otegi, 18 urteko zaldibitar gaztea, txapeldun bikoitza dugu: Gi-puzkoa eta Euskal Herrikoa, larruzko pilotarekin paletan. Ordiziako Oiangu Pilota Elkartearen babesean ari da joka-tzen. Iñaki Aranburu ordiziarra lagun zuela irabazi zien Billabonako Bearza-na Elkarteko pilotariei, eta Gipuzkoako txapela eskuratu. Euskal Herrikoa ere Gorka eta haren bikotearentzat izan zen.

22-GOIERRITARRA

Egindako merituen ondorioz, Iruñean egon da kontzentraturik, Biz-kaia, Nafarroa, Aragoi eta Asturiasko pilotariekin batera. Gure protagonistak aitortu zigunez, oso maila ona dago jokamolde honetan, bai hemen eta bai kanpoan. Bestalde, Gorkak aurrera se-gitzeko asmoa du, eta denbora asko baino lehen pala-motzean hasiko da.

Alamartxo

Joan den urteetako usadioari jarraituz, San Joan bezpera gauean, festa herri-koia izango da Zaldibian. Besteak beste, ardo-kupela jarriko da herriko plazan, nahi duenaren dastagai. Bestalde, Zu-biburu Elkartek marmitakoa prestatu-ko du. Jon Motxales, Goierriko txapel-duna, izango da sukaldaria. 1.500 peze-ta kostatuko da eta estraina esertzen di-ren ehun lagunek afaldu ahal izango du-te. Gaueko 10:30ak aldera, alamartxo

egingo da herriko plazan. Horixe da Zaldibian San Joan suaren izena.

Ehizerako lizentziak

Aurrekoetan bezalaxe, Gaztelu Elkar-tea ehizerako lizentziak tramitatzen ari da. Atera nahi duenak jo beza aste honen barruan elkarteko lokalera eta hantxe eskuratu ahal izango du datorren den-boraldirako ehiza-lizentzia.

Udako iharduerak

Aurrekoetan bezalaxe, aurtengo uztai-lean ere, Udalaren eskutik, izango da herriko haur eta umeentzat entreteni-mendu eta iharduera dibertigarririk. "Udako iharduerak" programan 3 urte-tik 12ra bitartekoek har dezakete parte eta uztailaren 3tik 21era burutuko da.

Rufino Iraola

Alkatea aukeratu bezain pronto istiluak

Joandako larunbatean, hilak 17, herriko alkate nor izango zen erabakitzekeo plenua burutu zen Udaletxean. Bertan Juan Vicente Erauskin EAJko alkategaia izan zen aukeratua. Beste 4 urtetan herritarren buru izango dugu, beraz, Juanbi. Dena den, plenoko protagonista ez zen bera izan, Josu Aierbe baizik, egun preso dagoen ordiziarra. HBko zerrendan sartua zegoen Josu eta herritarren nahia izan zen hauen ordezkari izatea. Epailen baimena lortu ondoren bertaratzeko aukera izan zuen. Ondorio tristea ere izan zuen orde, egun honek. Plenoa amaitzean ertzainen eraso izan zen, eta Jesus Mari Galparsoro zauritua gertatu zen. Dirudienez, metro eskasera zegoen ertzain batek jaurtiki omen zion gomazko pelota.

Plenoari hasiera emanez adin-mahaia osatu zuten. Zinegotzi zaharrenak eta gazteenak osatzen dute, hau da, Jesus Mari Lariz eta Josu Aierberi egokitu zitzairen. 13 zinegotziak kargua kargua betetzeko prest zeudela baieztatu ondoren, HBko bozeramale gisa Josu Aierbe 'Txupi'k hartu zuen hitza. Besteak beste, hirukoa osatzen duten alderdiak salatu zituen, demokraziaren aurka egiteagatik, elkarriketa eta negoziaketak oztopatzeagatik eta abar. Giza eskubideak ez zirela errespetatzen ere salatu zuen, era berean autodeterminazioa eskatuz eta ETaren bake eskaintza bergogoratu.

Ondoren, espetxean jasandakoen berri argitu nahi izan zuen 'Txupi'k, plenura hurbidu zen jendetzari bertako errealitatea erakutsi nahian. Atxilotu ondoren, Donostian egondako 3 egunetan poliziengandik jasotako kolpe latzak salatu zituen lehenbizi. Jarraian, armairu baten kontra buruarekin joka ibili zela aitortu zuen, zauriren bat egin eta ospitalera joateko asmoarekin eta



polizien "kariziez" libratu asmoz. Kartzela barruan preso politiko eta gainontzekoen artean dauden desberdintasunak ere azaldu zituen: maila guztietan trabak, komunikazio eza, miaketak...

'Txupi'ren tartea amaitu ondoren alkatea hautatzeko tramiteari ekin zitzaion. Zerrendaburu guztiei galdetu ondoren, bi izan ziren prest zeudenak kargu hori betetzeko: HBko Miren Begoña Korta eta EAJko Juanbi Erauskin. Ixilpeko bozketa gin ondoren, emaitzak honakook izan ziren: Juanbi 5 botu, Miren 3, 4 zuri eta abstentzio 1. Inork ez zuen eskatzen den gehiengo osoa lortu. Beraz, legearen arabera, udal hauteskundeetan boto gehien lortzen dituenarentzat izango da alkatetza. Gogoratuko duenez, EAJk 1.203 boto lortu zituen, HBk baino 10 gehiago. Ondorioz, datozen 4 urtetan EAJko Juan Vicente Erauskin izango dugu berriro alkate. Ondoren, alkateak zinegotzi bakoitzari zegokion domina banatu zion.

Plenoa amaitu bezain laster, 'Txupi'ren agurraren ordua irtsi zen. Esposatu egin zuten eta segituan furgoiara eraman, berriro espeteratzeko.

Udaletxe azpian herritar ugari zain zeuzkan Josuk. Tentsioa nabaria zen.

Hitaroren urteko batzarra

Hitzaro Euskara Elkarrekin betiko martxan darrai, herrian euskararen erabilera normalizatu eta sustatzeko helburuarekin. Horretarako, dakizuen bezala, 3 lan-talde sortuk ditu jadanik eta urtean zehar hainbat ekintza burutu dituzte: azterketa soziolinguistikoa (euskara eta gazteak Ordizian), alderdi politikoekin harremanak izan, 'akatsak zuzenduz' ikastaroa... Orain honetan jakitera eman digute, hil honen 29an, osteguna, 19.00etan eta Barrenan, urteko batzarra egingo dutela. Aztertu beharrekoak honakoak dira: iragan urtealdiko iharduera eta kontu-balantzea, Arduradun Batzordeak ekitaldi berri-rakoa aurkeztuko dituen egitasmo eta aurrekontuak, osakide berrien hautaketa (azken urtean ihardun duten 10etik 5ek jarraituko dute eta beste 5ak hautatu beharko dira) eta norberak dakartzanak.

Kanpoko igerilikua zabalik

Udan sartu garela eta, Majori Kiroldegia kanpoko igerilekua ireki berri du. Honez gain, ordutegia aldatzea ere tokatzen denez, 12 orduz zabalik egongo da hemendik aurrera, 9.00etatik 21.00etara, egunero. Bestalde gogoan izan, ekainaren 30an "bukatuko" dela abonua. Datorren denboraldirako berria lortu nahi izanez gero, Majoriko idazkaritzara hurbildu zaitezke, epea jada irekita baitago. Majoriko taberna-koek jakitera eman dutenez, eguneroko menuak mantentzeaz gain, asteburuetan menu bereziak izango omen dira.

 Aitor Calvillo Zurutuza

GABIONA

Errodamentuak O. E.

F.A.G. eta G.P.Z.-ren banatzailea

Tel: 88 45 00
Fax: 88 99 06

Goierrri, z/g
ORDIZIA

IKAS EZAZU MEKANOGRAFIA



**meca
rapid**

UDA GUZTIAN ZABALIK

Urdaneta, 23-1. ☎ 887278 **ORDIZIA**

Domina ugari Eskolarteko Olinpiadetan

Ordiziako Guraso Elkarteak antolatuta, martxotik ekainera, XIII. Eskolarteko Olinpiada ospatu da. Herri Eskolako ikasleek kirol hauetan parte hartu zuten: atletismoa, futbitoa, mahai tenisa, mendia, pelota, sokatira, koskolkilketak, txirrindularitza eta eskubaloia. 3. mailatik 8. maila bitarteko ikasleak dira Eskolarteko Olinpiadetan parte hartzeko aukera dutenak. Gutxienez kirol bat praktikatu dutenak 77 ikasle dira. Beraz, % 83ko partaidetza izan da. Emaizak honakook izan dira:

Atletismoan, neska benjaminetan, Amaia Urbizuk urrea lortu du 150 eta 600 metroetan. Mutil alebinetan, 1.000 metroetan Xabier Azurmendik zilarra eskuratu du eta Jon Pereirak pisu jaurtiketan urrea.

Mahai tenisean, mutil benjaminetan, Eneko Arratibelek urrea lortu du eta Aritz Agirrek brontzea. Neska benjaminetan, brontzea Maria Alustizarrentzat izan da. Mutil alebinetan, urrea Joseba Gorrotxategik, zilarra Koldo Otaegik eta brontzea Andoni Aldasorok lortu dute. Eta neska infantiletan, Nerea Rosadorentzat izan da zilarra.

Mendian berriz, mutil benjaminetan zilarra Aritz Agirre, Jon Berasategi eta Joseba Telleriak eskuratu dute. Eta neska infantiletan, Amaia Garcia, Sonia Encinas, Nerea Ormazabal eta Nerea Rosadorentzat izan da zilarra.

Pelotan, neska infantiletan, Amaia

Aldasoro eta Nerea Rosadok irabazi dute urrea.

Sokatiran, herriko bi neska taldek eskuratu dute urrea. Alde batetik Maria Alustiza, Jone Idigoras, Itziar Labaka, Leire Perez, Oihane Sarasola, Ursula Arakama, Nora Aramendi, Oihana Inza, Ainara Idigoras eta Amaia Urbizuk osatutako taldeak. Eta bestetik, Alazne Aizpeolea, Iratxe Ormazabal, Aiora Katarain, Ainhoa Murillo, Amaia Aizpeolea, Eneritz Arrondo, Jaione Gorrotxategi, Jaione Larrea, Lierni Legorburu eta Amaia Ormazabalek osaturikoak. Mutil benjaminetan berriz, Eneko Iraola, Aritz Agirre, Oier Ariz-

korreta, Eneko Arratibel, Xabier Azurmendi, Jon Berasategi, Aritz Berasategi, Joseba Berasategi eta Josu Legorburuk zilarra lortu dute.

Koskolkilketan, benjamin mailan, Amaia Urbizuk eta Aritz Agirrek urrea lortu dute.

Eta **eskubaloian** azkenik, mutil infantilek, Gorka Agirre, Joseba Aizpeolea, Aitor Arakama, Julen Aramendi, Jon Azurmendi, Xabier Goiburuk, Egoitz Irastorza, Eneko Larrea, Aritz Toledo eta Aitor Urbizuk zilarra eskuratu dute.

Edurne Albizu



SEGURA

Arkaitz Sodupe karrera irabazle

Hona lehenengo astebukaeran izan diren ekitaldietako emaitzen berri: zapa-tuan egin zen arrantza txapelketan Eritz Intxaustik irabazi zuen 17 amurrainekin, ondoren Iban Berasategi 9rekin eta Xabier Etxeberria 6rekin. Ondoren egin zen marrazki txapelketako irabazleak taldeka eta hurrenez hurren ondorengoak izan ziren: eskolaurrean Ander Egaña, Jon Otegi eta Maria Gerriko. 1go eta 2. mailakoen artean Asier Izeta, Estitxu Telleria eta Alaitz Imaz. 3., 4., eta 5. mailakoen artean Sebas Telleria, 24-GOIERRITARRA

Anaitz Imaz eta Nagore Etxezarreta, eta 6. eta 7. mailakoen artean Eider Goia, Saioa Arostegi eta Amagoia Lekuona. Gazteentzako bola txapelketan Irautz Telleria, Ohiana Etxeberria, Iban Berasategi eta Beñat Elorza sailkatu ziren. Tokan, Beñat Elorza izan zen irabazle eta Irautz Telleria, Ohiana Etxeberria eta Xabier Ormazabal hurrena. Arratsaldeko plater tiraketan Oier Makazagak irabazi zuen, eta ondoren Paulo Arostegi eta Joxe Mari Agirre geratu ziren.

Igandeko gazteen mailako txirrindulari proban Arkaitz Sodupe herritarra izan zen karreraren irabazlea. Dantza txapelketan berriz, Edu Muruamendiarrak eta Amaia Agirre bikoteak eraman zuen txapela eta Nestor Basterretxearen irudia. Igandean goizaldera burutu zen lauankako entsalada janean Oskar Terra, Xabier Alustiza eta Joxe Migel Aldanondo sailkatu ziren.

Joseba Telleria

Aitor Alkate



Lazkautei-berriko Aitor dugu Alkate. Hilaren 17ko Plenoan, 5 botu jaso zituen: "Herrigintza" taldearen laurak eta EAren bakarra. Lauztiturritako Karmelek berriz HBren laurak. Azkenean EAK, Aitorri eman zion botua.

Ez du lan xamurra izango Alkate berriak. Berak esan duenez, ahalegin guztiak egingo ditu orain HB ere Udalean sar dadin. Aste honetan bertan hasi dira hizketan. Karmelek Plenoan esan zuenez, gauzak oker hasi dira HBri alkatetza kendu zaiolako baina hitzegiteko prest daude eta ate bakar bat ere ez dute itxiko.

Gauzak oso berri daude oraindik eta denbora pixka bat beharko da giroa bere onera etortzeko. Alkateak esan digunez, herritarren arteko harremanak hobetzea da bere lehen helburu nagusia. Posible izango al da? Saiatu faltaz ez al da geratuko behintzat!

Guk dakigunez, Ataungo historian lehenbiziko aldiz aita-semeak iritsi dira herriko alkatetara. Aitorren aita Juan ere alkate izan genuen Franco hankaganean zenean. Ondo dantza dezala armarioan erdi-okertuta dagoen alkate-makila. Ta gure inguruan zer? Gurekin muga egiten duten herrietan alkate hauek dituzte: Idiazabal, Antton Irizar (EA); Lazkao, Iñaki Estensoro (PNV); Zaldibia, Jose Inazio Elizegi (HB); Etxarri, Juan Kruz Aldasoro (HB); Bakaiku, Nikanor Anso (EA); Iturmendi, ez da inor aurkeztu; Urdiain, Migel Anjel Zubiria (EA); Altsasu, Jose Anjel Agirrebengoa (Independientea).



10 urte gartzelan

Gau luzea izan zen orain 10 urte, ekainaren 20tik 21erakoa. Gau hartan bertan 17 herritar hartu zituen preso goardia zibilak. Geroxeago udaletxean protestan zeudela Itzateko Gregorio zena eta Lauztiturritako Karmele. Huelga orokorra ere egin zen herrian. Gerora 19 atxilotuetatik 10 libratu zituzten eta ondoren 7 gelditu ziren gartzelan. Hauetatik Juan Karlos Yoldi, Joxemari Lizarraga eta Joxe Goikoe-txea daude oraindik gartzelan.

Hauek eta atzerrian dauden Inaxio Aierbe, Xabier Arin eta Migel Anjel Apalategi omentzeko, ekitaldiak antolatu dituzte Amnistiaren Aldeko Batzordeak.

Ekainak 15, Garaipen Eguna

Orain 3 urte San Martingo festak egun horretatik kentzea erabaki zen. Politika litzateke hala ere, memoriari eusteko egun horren bueltan zerbait egitea. Pena da fetxa seinalatua galtzea.

Ekainak 24, San Juan eguna

Arrondon jaiak dituzte. Garai batean San Joan egun inguruan Garaiko Eguzki Jaiak egiten ziren. Urte batean, 59 ezpata-dantzari joan omen ziren San Gregoriora. Pasadizo bat ere bada On Joxemielek jasotakoa: "Urrez betetako idi-narru asko omen da herrian zehar

gordeta. Esaundak dioenez, Arastortz gainean, San Joan goizez eguzkiak jotzen duen lehenbiziko lekuan, ahuntzen azkazalak azaltzeko eran omen dago". Garai batean, atxurra hartuta ibiltzen omen zen jendea urtearen bila.

Xantixalak gainean

Iritsi dira Aieko festak. Hilaren 30ean hasi eta uztailaren 2ra. Girorik ez da falta izango. Ume-jolasak, sagardo probaketak, dantzariak, berbenak, trikitilariak, Meza Nagusia, txirindulak eta Aierbe eta Arria V. aizkoran. Ondo pasa.

● **Arantzazuko egutegia.** Fraileek ateratzen duten kalendarioan, Atauni buruzko kontuak etorri ziren hilaren 12an. Herriaren historia, lekuri ikusgarrienak eta bestelako kontu batzuk. Makina batek irakurriko zuen. Ez dago gaizki.

● **Kutxaren bulego berria.** Hilaren 30ean irekiko du Kutxak bulego berria. Mintzatuko gara lasaia.

● **Eskolameek jai.** Iritsi zaizkie "bar-kazioak" herriko koxkorrenei. Esaera zaharra gogoratu beharko diegu: "Eskolame sasi-sasi, asko jan eta gutxi ikasi".

● **Heriotza.** Intxaurrendoko M^a Angeles Aldai hil zen ekainaren 9an. 56 urte zituen.

Jon Aizpurua

Artea Elkartearen zilar-ezteiak

Gogoratzen al zarete nolakoa zen bizimodua duela 25 urte, jo dezagun, Goierriko herri txiki batean? Zertan lan egiten genuen? Nola alaitzen genituen jai egunak, edo igaro lanetik kanpoko orduak? Pentsatzen jarraitu apur batean eta gerta daiteke oso erraz 60. hamarkadako azken urteetako altzagatarren irudia izatea zure buruan (gutxi gorabehera, noski).

Bertako bizilagun batzuk egindako hausnarketen ondorioz, 70-VI-29an, Sanpedro egunez, Artea elkarte osatu zen Altzagan. Garai hartan nortasun administratiboa ere galdua zuen eta Itsasondoko Udalerriarekin bat eginda bizi zen. Hona zenbait datu: 200 biztanle inguru, ia erdiak atzerriatik eta tropelean etorritako langile jendea, leku gutxian **herbearen** (herri erdian) inguruan bizi zirenak; gainontzekoak berriz bertako baserritarrak, herriko 30 baserrietan banaturik, batzuk Ordizia eta Beasaingo lantegietara hurbiltzen zirenak. Hara beste datu batzuk: apaiz bat herrian, "Don Jose"; maixtra bat ere bai, "Señorita Ines"; mutil eta neska gazte kuadrila bikaina ere bai. Orain artekoarekin lekuan ondo xamar kokatuta gaude. Eta jende horrek, zer egiten du lanetik kanpo? Ez gaude mendearen hasieran, danbolina mendian joz, ez da jadanik nahikoa; meza-ondorengo tertuliak ere kanpolibrean ez dira hain atseginak, erakargarriagoak izaten dira estalpean, itzalean; hobe oraindik baso-ardo baten aldamenean eta hamaiketako baten laguntzaz. Eta hori egiteko, zer hobe garai hartan modako jartzen ari ziren elkarte gastronomiko haiek baino?

Modernitatean ere jartzeaz gaude euskaldunok: telebista eta irrati etxeetan, telefonoa, futbola, ez pilota bakarrik, eta ondo pasatzea multzoetan egiten da, masifikazio neurri bat eskatzen du. Hori kaleetan, basoerrien zirkuitoetan gauzatzen da, eta herri txikietan, zirkuitorik egiterik ez dagoenez, herriko tabernan. Sortu da, gainera, beste figura berri bat: "soziedadea". Hor gizonetakoak gogoz biltzen dira edariaren, jakiaren, tabakoaren, karten, eta batez



ere, hizketaren inguruan bilduta. Matxismoaren ezaugarri bat gehiago baino ez askorentzat, beste zenbaitentzat ordea lagunarteko erreferentzi nahi eta ezinezkoa bihurtzen da denborarekin.

Altzagako Artea herrian zegoen taberna bakarra istean sortzen da, aurreko plazan duen zuhaitz erraldoiari izena hartuz. 40 lagunek osatzen dute lehen kide-zerrenda eta han tartean 18 urtekoetatik hasi eta jubilazioko adina duteneraino aurkitzen dira. Hasiera hasieratik ez da diru isurtze handirik egin beharrik izan, Elkartea osatzen duten sukaldetxoak, taberna, komonak eta azpiko bodega Udalarena den Dorremendia etxean jarri bait dira. Harrezkero egin dira zenbait zabalkuntza eta be-

rrikuntza, eta gaurko gelek ez dute orduko sukalde ilunaren antza handirik.

Urte horietan zehar izan da, jakina, bestelako aldaketarik ere. Bat, nabarmena: gaur egungo 61 kideetatik 4 emakumezkoak dira. Zeinek pentsa hori hasiera batean! Bestea: azken neguetan irekitzen dugun sagardotegi pribatua... Askok aldatu ez den gauzarik ere bada: adibidez, herriko mutil gazte batek sar-

rrerako ordaindu beharra 14.800 peztatan mantentzen da aspalditik. Aurten, gainera herriko gazteei eskeintza berezia egiten zaie, horri deitzen zaio harrobiaren promozioa!

Botoak kalera itzuli aurretik, benetan demokrazia lantzen zen Artearen pareten artean. Funtzionamendua arautzen zuen legedia ia hasiera batetik onartua izan zen, Antton Ibarguren zenaren proposamenez. Ordundarik Zuzendaritza Batzordetik pasa dira kide gehienak, askok, beharbada, aspaldiko gaueskolan ikasitako batuketak berriro praktikan jartzeko aukera hor izan zutelarik: gastatutako ardo litroak eta jasotako pezeta apurak ondo parekatu nahian.

Hala ere, 25 urteotako Artearen ezaugarrietako bat aipatu behar bagenu, herriarekiko izan duen jarrera zabala adierazi behar. Alde batetik kide izan nahi dutenei jarritako erraztasunak, eta bestetik elkarte bezala izan duen parte-hartze zuzena herriko hainbat ekintzetan. Ez dira ahaztu behar antolatzen dituen mus txapelketa, sagardo lehiaketa, San Pedrotako hamaiketako eta beste barne saioak, guztiak herritarrentzako zabalduak. Ezin ahaztu, baita ere, beste zenbait antolakuntzetan ematen duen bultzada, bat aipatzekotan San Migel jailetan.

Ohitura on horiek ez galdu nahian, 25. urtebetetzea ospatzeko baditugu ikuskizun batzuk --edan eta jangaiez gain--. Gustokoa baduzue behintzat hurbildu eta festa giroan dastatu besterik ez duzue.

 **Mikel Oiarbide**

Ekainaren 30ean, 20.30etan afaria eta 21.30etan Pello Zabalaen hitzaldia izango da, 'Eguraldiaren igarriketa'ri buruz. **Uztailaren 2an**, 11.00etan, 'Altzaga mende honetan' argazki erakusketak eta ondoren hamaiketako izango da dohainik. 12.30etan, aizkora erakustaldia: Axen Urretabizkaia kanako egurra ebakitzen. 13.00etan, Joxe Agirre eta Jokin Sorozabal bertsolariak eta 14.00etan, bazkari herrikoia, zikiro-jana, Altzagako Plazan. Txartelak 881170 telefonoan enkargatu behar dira. Tartean Zabale Anaiak trikitilariak izango dira. **Uztailaren 14an**, 10.00etan, Gema M. Arrugaetak 'Artzainak: azken nomadak' diapositibak bilduma eskainiko du Artea Elkartean. **Uztailaren 16an** azkenik, 8.00etan Altzaga-Usurbe-Murumendi-Altzaga mendi ibilaldia izango da, Antton Ibarguren oroituz. Aurten 6. urtemuga izango da.

ORDIZIAKO PINTOREA BERE KARRERATIK EZ DA ERRETIRATUKO Luis Quilez: "Natura aitzaki bat da artearentzat"

Zegaman jaio zen Luis Quilez Alustiza. Zeraingo Barbariko jatorrikoa zen, Zumalakarregiren sendagile "Petrikilo"-renekoa. Txikitant Ordiziaratu ziren, euskara besterik ez zuenean. Oraindik gogoratzen du nola bere amona errekadistak, dilijentzia modukoan Beasaina jeitsi eta hor Donostiarako tren hartzen zuen bere saskiekin. Han saldu baserriko jeneroak, arrainak erosi, eta Zegamako ultramarino dendan dirua ez baino kafe eta abarren trukea nola erabiltzen zuten. Amaren aldetiko aitona taila lantzen zuen, Segurako elizan gordetzen dira bere lanak. Gogoan du ondo aitona karlista hura, Bergarako Besarkada gustoko ez eta Frantzia erbesterratu eta gero tuberkuloso bueltatu zena.

Gaztetatik zaletu zen Quilez marrazkigintza eta untzietara, Beasaingo prailatan. Margotzen segi eta Donostiako publizitate agentzia batean hasi zen lanean. Komikiak ere egin zituen Vigoko iragarki-etxe baterako. Begiak eta nerbioak kaltetxean utzi zituen. Gerroztik (Vigo, Zaragoza, Madril, e.a.-etan erakusketak egin arren, ez da marketinzale) adi ibili da munduko arte korronteei erreparatuz. Literatura bildumazale ikaragarria, grabatu, komiki eta aldizkari piloa ditu etxean, koadro sortak, bozeto mordoa, buztinezko eskulturak, maskarak... zer ez digu erakusten Andra Mari kaleko estudioan?! Zenbait uholdek (Ordizia eta Donostiako estudioetan jasandakoak), lapurretaren batek eta egunero erabiltzen duen trenean ahaztuta galdutako koadroek bere ondarea hondatu badute ere, badu oraindik zer erakutsia.

Brotxa lodirako pinturarekin ere egin ditu artelan politak. Gerraurreko Berpizkunde mogimenduan Oteiza, Balentziaga, Zurutuza (egurra lantzen zuena), eta Lekuona eta Sarriegi ordiziarak zeuden. "Sarriegi etxe eta estudio onekoa zen (ojalateroak ziren),



eta bere babesean zebiltzan besteak. Marrazkilari ona zen eta oso ahaztua dagoela iruditzen zait, berarekin konpondu ez banintzen ere. Bada hauek nire koloreekin txoratzen ziren (ez baitzen tubokoa, nahasketa baizik) eta nire koadroen 'baloreak' aipatzen zituzten behin eta berri. Ni, berri, 'balore' hitzak zer esan nahi zuen jakin gabe gelditu nintzen, hiztegiak ez zekarren eta beraiek ez baitzidaten esplikatzen".

Atzera begira ez zen geratu horratio Luis: Donostian hartu zuen estudio bat eta, urteak aurrera badoa ere, ez dizu hutsik egingo, egunero goizez pintatu, tren hartu gero (relajantea beretzat) eta Donostian prantatzen da, bere ikasleei klaseak emateko. "Teknika edonori erakutsi lekiok, baina koloreak sakratuak dira; norberak bere erara ikusten ditu eta inori ezin diozu hori erakutsi. Hor ikusten da bakoitzaren tenperamentua: 20 margolarik, puntu beretik, 20 koadro desberdin egingo dituzte". Seinalea arte mota hori subjektiboa dena.

Barrutik kanpora margotu

Obra burutu eta saldu. Enkarguzko pintorea izan da gehiago Quilez. "Ondo pagatua?", galdetzen diot. "Batez!", dio bere euskeratxoan, baina zerbait esateagatik. Preziatua ere izan

bait da, dakigunez. Teknika ugarirekin esperimentatu izan du, pintzel, olio, soporte eta kolore ez-ohizkoekin. Dena probatzearen aldeko, kezka artistikoa daukanak ibilitako bideak alde batera utzi eta probatu egin behar duela dio. Pintoreak behatzailea izan behar du, bere uestez, margotzen baino gehiago begiratzen lan egin behar du. "Barrutik kanpora margotu behar da, ez alderantziz. Paisaje bat, tenperamendu artistikorik ez duenak, erretratatu besterik ez du egingo eta horretarako argazki-makinak hobeak dira. Orain, inularreko argi batzuen zale bazara, korrientea ez den horrek balio du. Natura pretestu bat da artearentzat, ez da kopiatu behar. Arte ederretan poesia bezalatsu da, metaforak egin litezke (irudiak edertuz), elipsiak (sobran dagoen arbola edo dena delakoa kenduz), 'esaldia' ren forma aldatu liteke..."

Kontserba litekeenarekiko tradiziozale agertzen zait. Ez da abstrakto-zalea. Garai bateko arte ederrak egiteko teknikak, espiritualidadez bustitako errealismoa etsi-oroitzen ditu. Makina bat kontu nahasten ditugu, zigarro bat besteren atzetik ahoan dugula, pintore-estudio tipiko bezain harrigarrian. Goierriko hainbat pintore ere hor izan ohi ditu askotan: Javi Soto, Josetxo Beristain, Marisol Legorburu, Arantxa Arano... Gehien saltzen dena paisaia bada ere, jendeen figurak eta erretratuak ditu gustokoen. Hamaika pasadizo baditu (lo hartu zion neska txikiarenak, ederrago ateratzen dituen emakumeenak...).

Zorte-kolpe onak eta txarrak, denetik pasa dituen artista honek, inspirazioa ez baino lana bezalakorik ez dagoela uste du eta bizirik den arte gutxian horretan arituko den konbentzimendu osoa. Eutsi goiari.

 Jon Mikel Arano

INAKI ESKISABEL BEASAIN EKIN 2.A-RA IGOTZEKO PLAY-OFF-ETAN

“Neure burua beheraka ikusten badut utzi egingo dut, ez daukat arrastaka ibiltzeko gogorik”

Iñaki Eskisabel
olaberritarra Beasain
Futbol Taldeko kapitaina
da. 28 urte dituen mutila,
futbolari Lazkaon egin zen eta
ia lazkaotarra ere bada.
Beasainen daraman 5.
denboraldia du aurtengoa eta
bertako afizioaren “idolo”
izatera iritsi da.

G.- Egiguzu urteko balantze bat.

E.- Urte ona izan da. Haseran maila mantendu eta ahal zen goien geratzea zen asmoa, azkenean play-off-etan sartu gara eta Kopan hirugarren kanporaketara iritsi ginen.

G.- Denboraldia luzea da, aurten gehiago. Ez al duzue beste jokalariren baten beharrik nabaritu?

E.- Aurrean zerbait falta izan zaigu. Batez ere azken aldera suete txarra ari gara izaten lesio eta tarjetekin. Agian beste bi jokalarizatea ez zen txarra baina, ez da hain plantila motza 3 porteroekin 20 jokalarizatea. Gainera suete ona izan dugu bukaerarte, baina ikusten zen jende zuxtu genbiltzala. Hori entrenatzailearen gauza da.

G.- Zergatik sartu dituzue hain gol gutxi?

E.- Igual erditik aurrera zerbait gehiago falta izan zaigu, baina ez aurrera iristen ez garelako. Puntu asko galdu ditugu aurrean izandako aukerak aprobetxatu ez ditugulako. Baina ez zait iruditzen, jendeak dioen bezala entrenatzaile defentsiboa dugunik. Perikori futboleko jokatzea gustatzen zaio. Taldean denetik dago, jende heldua eta gaztea. Batez ere lana egiten duen taldea da, oso brillantea ez, baina langilea eta hor daude emaitzak.

G.- Ikuslegoa, egin den denboral-



diaren neurrian portatu al da?

E.- Garbi dago ezetz, ni harrizta geratzen naiz. Beasainek, jeneralean, ez du merezi 2.B mailan talde bat. Uleritzen dut, kanpoko jokalariek jokatzen dutenez jendeari ez diola “tiratzen”. Gainera, joaten den jende gutxia ikaragarri hotza da.

G.- Play-off-etan sozioei ere sarrerakobratu zaie.

E.- Baliteke sarrerak garestiak izatea. Play-off-etara iristean ez zegoen zorrik, baina azken partidua hauetan gastu handiak daude. Jendeak uste du subentzioak daudela baina ez da horrela, eta adibidez, Almeriako bidaia 700.000 pezeta kostatu zen. Zorte ona izan dugu ETBk partidua bat errestramitu zuelako. Sozioak urterako egiten dira, baina ezinezkoa da orain Play-off-ak zorrarekin bukatzea. Gainera, prezioak jeitsi ezker, jakin nahi nuke zen puntututuraino joango zen jende gehiago partiduetara.

G.- Play-off-etan maila jeitsi al duzue?

E.- Agian bai, baina ez dut uste hain-

beste izan denik. Lehen partiduan, Almeria agian talde gehiago izango zen, baina bigarren zatirarte ondo ibili ginen. Valenciaren aurka, etxean, aulkian bi jubentilekin jokatu genuen eta horrela normala da maila jeistea. Hala eta guztiz ere partidua ona egin genuen. Nik ez dut hainbesteko diferentziarik ikusten gu eta beste taldeen artean.

G.- Hotz-hotzean begiratu, ez zen hobe izango 5. geratu eta denboraldia zapore onarekin bukatzea?

E.- Denoi ilusio handia egin zigun Play-off-etan sartzeak. Gero egia da bi astetan dena aldatu dela. Zorte txarra duzu, ilusioa galtzen duzu, posibilitatea gutxitzen dira... Tentsioa mantentzeko motibazio handia behar da. Gainera oso gogorra da, autobusez bidai luzeak etabar, astakeriak dira, autobusez lepa zurreraino bukatzen duzu. Hori dena ilusioarekin gaintitzen da.

G.- Zer moduzkoa izan zen Kopako esperientzia?

E.- Denboraldirako zerikusia izan du. 3 kanporaketa jokatu eta haieratik 2 oso gogorrak izateak mina egin digu. Az-

kenean justu xamar bukatu dugu. Baina esperietzia bezala oso polita izan da. Castellonen aurka hemen berdindu eta han 2-0 galtzen joan ondoren 2-2 berdindu genuen. Albacete berriz, garbi dago teknikoki gu baino gehiago zela, baina ez ninduten inpresionatu, partidua kontrolatuz ibili ginen.

G.- Donostia inguruko jokalarari asko dituzue, Goierrin ez al dago batere?

E.- Nere ustez badago, baina garbi dago Perikok ezagutzen dituen eta lehen eduki dituen jokolariengatik egiten duela apostu. Beasainek inguruko taldeekin duen erlazioa nahiko motza dela iruditzen zait. Gauza horiek ez dituzte baloratzen. Ez dira Lazkao, Ordizia eta beste taldeen partiduak ikustera joaten, eta inportantea izango litzateke. Gaine-

ra inguruko jendeak jokatzeara, partiduetara jende gehiago joateko modu bat litzateke.

G.- Zein aldaketa ekarri zituen Perikok eta zer ekarri lezake Zamorak?

E.- Perikoren aurretik fitxaketak "ize-nekoak", edade eta esperientzia zutenak izaten ziren. Gero, aurrekontuak jeitsi zirela eta Perikoren lan egiteko modu berriarekin, Sanseko gazteak ekarri ziren. Diru gutxiago kobratu eta ilusio gehiago jartzen dute. Datorren urterako berriz, ez dakigu zein jokalarri joango diren kanpora, ez eta Zamorak nola lan egiten duen ere. Normalena blokeari eutsi eta erreforzuren batzuk ekartzea izango litzateke.

G.- Nola ikusten zara, mantentzen,

beheraka?

E.- Ni ondo nago. Datorren urterako ez dugu hitz egin, baina ni jokatzeko moduan ikusten naiz. Egunen batean neure burua beharaka ikusten badut utzi egingo dut, ez daukat arrastaka ibiltzeko inongo gogorik. Baina ez dakit erabat utziko nukeen, polita izango litzateke herrira itzuli eta Lazkaon jokatzeara.

G.- Orain 5 urte espero al zenuen iritsi zaren lekura iristea?

E.- Haseran 2 urtetan, 2 maila igo genituen. Hori ez duzu pentsatzen, ilusioa beti duzu baina oso zaila da. 2.Bn berriz lehen urtean ez ginen oso ondo ibili, baina beste 2 urteak oso onak izan dira. 5 urtetatik 4 goian egotea ez da oso normala.

G.- Beasainen "idolo" izatera iritsi zara, Lazkaotik atera zineneko amets batzuk bete al dituzu?

E.- Lazkaotik 23-24 urterekin atera nintzen eta adin horrekin ezin duzu espero 1. mailan jokatzeara. Egia esanda espero ez nuen maila batean jokatzeari naiz, eta gutxiago espero nuen aurretik bezala 2.A mailara igotzeko fasea jokatzeara. "Idolo" naizela badiozue, hori jokatzeko urteen emaitza izango da.

G.- Nola eramaten duzu hainbeste elkarriketa izatea?

E.- Ni ez nago hortara ikaragarri ohituta. Baina ez da hainbestekoa ere, goitik talde asko bait ditugu. Baina adibidez Albaceten ikaragarria izan zen zenbat elkarriketa egin zizkiguten. Azkenerako erdi txantxetan hartzen genituen. Aurreko egunean hotelean, denbora guztia irratietarako hizketan aritu ginen eta partidua bukatutakoan Barcelonakoak ginela zirudien.

 Mikel Albisu eta Igor Sarriegi

Ezin da gehiago eskatu

Urte hasieran inortxok ere ez luke horrelako denboraldiaren aldeko apusturik egingo. Ligan play-offetan sartzea eta Kopan Albaceteri hartzak erakustea, ez zegoen bai korrenaren buruan.

Guzti honen atzean lana dago. Teknikoki ez da bere mailako inor baino gehiago izan, baina honi konzentrazioarekin, zelaian ondo kokatuta egotearekin eta sufritzeko izan duten dohainarekin aurre egin diote, defentsan talde sendo bat bihurtuz. Hutsunerik nabarmenenak erasoan izan dituzte. Azken metroetan behar baino gehiago hutsegini dute eta hau ondo nabaritu dute play-offean. Beste arazo bat plantilari jokalarri gutxi edukitzea izan da. Denboraldian zehar behin baino gehiagotan bota dute faltan beste jokalariren bat, batez ere play-off




fean. Baina orokorrean, erraz errepikatuko ez den denboraldi bat egin dute, eta zaletuek ez dute hau behar adina estimatu eta merezi baino erantzun kaskarragoa eman dute.

Periko Alonsok ere merezi du aipamenik. Bere lanaren ordainez talde aldutuko du eta Beasaina etorriko den Jesus Mari Zamorak ez du aurtengoa gaingitzen lan erreza izango.

Igor Sarriegi, kazetaria

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN



ANZIZAR, S. A.

Volkswagen
taldea

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Alpe

Mariartz, 4
Tfona: 88 86 84

BEASAIN

Aurten noren erritmora?

Uda gainean dugu eta disketxeak pixkanaka hasiak dira beraien produktoak salgai jartzen, gure inguruko jai edo festak alai ditzaten, hori da aitzakia behintzat. Zuk ere, nola ez, egin beharko duzu aukera batzuen artean. Hona hemen aukera:

Tapia eta Leturia Band / Elkar

Izen honekin bi gauza dakartzkigu talde honek batipat: lehenengoa horixe, taldea dela bere osotasunean, eta bigarrena, beraien soinuaren eginiko aldaketa nabarmena, gitarra zorrotzak, pisuak, metala, funky-a, rock-latza, hip-hop-a... zer ezin daiteke aurkitu diska honetan! Gazteentzat martxa zer denaren irakurketa bat, helduxeagoentzat urte batzuk gainetik kentzeko aukera, diska borobila.



Gozategi / Elkar

Aurrekoak baino frexkoagoak behar bada, non trikitixak garrantzia handiagoa hartzen duen. Beraien abestietan zaplazteko majoak jasotzeko moduko hitzak eta hori bai, ziur egon udazke-

nerako beraien abestiren bat buruz jakingo duzula, bazterrezina.



Lau Behi / I.Z.

Diskaren kontrazalean dioten bezala, % 100 naturala da beraien soinua, ez diote gezurrik 4 donostiar hauek. Rock garbia, rock-urbanoa da beraiek jorratzen dutena. Rithm & blues-aren influentziak ere gauzatzen direla entzun daiteke. Udako beroari aurre egiteko laguntzaile trebea, kalitatezko doinuei muzin egin gabe, baietz gustatu!

Negu Gorriak / Ideia zabaldu / Esan Ozenki.

5. lan luzea kaleratzean honelako frexkotasuna agerian uztea ez da normala, beraiek badute zerbait berezia, Europa osoan inork gutxi duena. "Hitz ein" gogor, "Nire baitan daude biak" barrura, "Salam, agur" mundura, "ideien kontrabandoa" neretzat, "aizu" biontzat eta "bakartia Hondarribian" ekin gogoetarako garaia. Uda honetan eguraldiaz baino zerbait gehiagotaz arduratuko zaretenentzat, on egin!

Dut / Esan Ozenki.


Talde honek bere lehen lanarekin nere Top 10ean sartzea lortu du. 10 abesti nahikoak dira zurbil, guztiz zurbil geratu zaitezten, crussoverra, fusioa, hip hop-a, hard-corea, denetarik aurkituko duzu lan honetan. Disko honen aurkezpenearan Fermin Muguruzak "abangoardia" hitza aipatu zuen. Urteak dira bai, ez genuela hitz hau erabiltzen musika talde bati buruz hitz egiteko. Udako eguzkitik itzala bada gehien gustatzen zaizuna eta udazkenaren zain bazaude, disko hau erostera behartzen zaitut.



7 eskale / Bertso berriak pobreziari jarriak / Gor.

Trikitxarekin gertatu zen, bertsolaritzarekin ere bazetorren eta azkenean heldu da rock-a eta bertsolaritzaren artean behar genuen topaketa. Honen errua Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Josu Zabalak izan dute neurri handi batean. Bi bertsolarien nondik norakoak Hertzainak taldeko bihotzak erritmo guztietara mugierazten ditu lan honetan eta emaitza, urte askotan irauten duen horietakoa.

Artza



ondoeta

HALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxe: 880872. 20249

ITSASONDO



Idiazabalgo 74ko kinta

Aloña Galarragak bidali digu oraingoan, berak dioen bezala, argazki "erdi zahar" hau. 6-7 bat urte zituztela mendira egindako irteera batean ateratakoa da.

Ezkerretik eskubira, goian: Miren Mayoral, Igor Reparaz, Jon Ander Alos, Idurre Galarraga, Ane Insausti, Amagoia Gerriko, Idoia Imaz, Idoia Imaz, Maider Barriola, Ainhoa Iparragirre eta Ainitze Iparragirre.

Behean: Nekane Imaz, Ibon Iparragirre, Aritz Eguren, Aritz Imaz, Estibalitz Katarain, Unai Urkia, Irune Oiarbide, Amaia Telleria eta Aloña Oiarbide.

"Goierritarrak Kultur Elkarte"ren deialdia ASANBLADA OROKORRA

Uztailaren 8an goizeko 10etan (1. deialdia) eta 10,30etan (2. deialdia) Elkartearen egoitzara (Dorre Etxea, 1. Ordizia) deitzen zaie bazkideei.

Gai zerrenda:

- * 94ko kontu-ematea eta onespena
- * Junta berritzea

GOIERRITARRA



88 96 12

Faxa: 88 27 19

ETXEBIZITZA ETA LUR-SAILAK SALGAI IDIAZABALEN

1.- 650 m²ko **partzela**, etxebizitza bat edo bi eraikitzeke aukerarekin, Goatse inguruan.

2.- **Txalet** bifamiliarrak, guztira 250 m²ko partzelarekin. 180 m² 3 solairuetan eraikiak.

3.- **Apartamentuak**, 55 eta 60 m²koak, Zelaako auzoan.

Guardi Poligonoan **partzela industrialak** salgai: 18.000 pzta. m²ko.

Ezolatza Poligonoan, N-1 aren ondoan, **partzela industrialak** salgai: 22.000 pzta. m²ko.

Informazioa Idiazabalgo Udaletxean. Tfnoa.: 18 71 00

UDA 95

KIROL EKINTZAK

ADINA 6tik 16ra

Tenis, Paddle, Squash, Badminton, Txirristi-Mirristi, Eskalada, Piragüismo, Hipika, Ur-azpiko ekintzak, Mountain-Bike, Igeriketa, Mendi irteerak eta bestelako ekintzak.

ADINA 17tik 30era

Tenis, Paddle, Squash, Badminton, Eskalada, Piragüismo, Hipika, Ur-azpiko ekintzak, Igeriketa, Mendi irteerak, Parapente, Rafting, Arroil-jeitsiera eta Hidrospeed.

ADINA 30tik aurrera

Tenis, Paddle, Ur-azpiko ekintzak, Igeriketa, Piragüismo, Rafting, Hipika eta mendi irteerak.

Egutegi, ordutegi eta prezioei buruz informazio gehiago:

☎ 88 93 33 / 88 93 53



ORDIZIAKO
UDALA



ORDIZIA



MAIZPIDE
euskaltegia

☎ 88 92 31 / 32

LAZKAO

XXI. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

- Uztaileko ikastaroa: 3-21
- Abuztuko ikastaroa: 1-25
- Iraileko ikastaroa: 4-29

Matrikula: maiatzaren 9tik aurrera

HABE-ren dirulaguntzaz

MODA-MODAN



1.950

PEZETAN

ZER DERITZOZU?

Zatoz berehala MULTIOPTICASera eta jar zaitez moda-modan MULTISOLEkin. Proba itzazu bere diseinu berritzaileak! Harritu zaitez ispiludun ereduak eta liluratu prezioarekin: 1.950 pezetan dituzu.

Eta denak kalitate optikodun kristalekin. Zer deritzozu? Jantz itzazu MULTISOL batzuk. Moda-Modan egongo zara.

ETA NAHI BADUZU,
GRADUATU
EGINGO DIZKIZUGU



**"ZURE MULTISOLEKIN KAMISETA
BAT OPARITUKO DIZUGU"**

Zatoz eta proba itzazu MULTISOLak

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE - Ibargaray, 16 • BERGARA
J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA